

Birformulazioa eta birformulatzaile esplikatiboak hizkera juridikoan¹

Reformulación y reformuladores explicativos en el
lenguaje jurídico

Reformulations, reformulateurs explicatifs dans la
langue juridique

Reformulation and explanatory reformulators in legal
language

ALBERDI LARIZGOITIA, Xabier
Euskal Herriko Unibertsitatea

EZEIZA RAMOS, Joseba
Euskal Herriko Unibertsitatea

Noiz jaso: 2013-02-21

Noiz onartua: 2013-07-09

¹ Artikulu hau Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV/EHU) –Unibertsitatea-Gizartea modalitatean– finantzatu duen US10/10 «Euskarazko diskurtso-markatzaileen hiztegia (I) / Diccionario de marcadores discursivos del euskera (I)» ikerketa-proiektuaren emaitzatariko bat da. Euskal Irrati Telebistarekin (EITB) eta Elhuyar Fundazioarekin sinatu ditugun lankidetzaz hitzarmenei esker garatzen ari gara proiektua. Artikulua, halaber, Xabier Alberdik parte hartzen duen «Gogo elebiduna / La mente bilingüe» (IT665-13) talde egonkortuaren ikerketaren emaitzen artean sartzen da.

Ikerlan honetan 'birformulazioa' eta 'diskurtso juridikoa' aztergaiak uztartu ditugu. Zehatzago esanda, euskarazko diskurtso juridikoan azalpenezko birformulazioak zer-nola-ko pisua duen eta birformulatuak esplikatiboak (*alegia, hau da, hots...*) nola erabiltzen diren ikertu dugu.

Artikuluaren lehen atalean ikerlanaren nondik norakoak aurkeztu ditugu. Bigarren atalean, birformulazioa zer den, nola gauzatzen den eta zer egitura duen azaldu dugu; orobat azaldu dugu zein diren birformulazio mota nagusiak eta zein diren euskarazko birformulatuak nagusiak. Hirugarren atalean, corpus zabal batean oinarriturik, estatistikoki eta kualitatiboki aztertu da nola erabiltzen diren hizkera juridikoan (lege-testuetan eta testu akademikoetan) eta hizkera orokorrean birformulatuak esplikatiboak. Laugarren atala, azkenik, ondorioei eskainita dago: azalpenezko diskurtso juridikoan (testu akademikoetan, bereziki) maiz jotzen da birformulaziora eta birformulatuak esplikatiboak erabiltzera; egiaztatu dugunez, birformulatuak jakin batzuk dira erabilienak eta haien agerpen-maiztasuna aldatu egiten da alorraren arabera eta generoaren arabera; bestalde, birformulatuak esplikatiboen agerpena eta eginkizun diskurtsiboak aldatu egiten dira testu motaren arabera (hots, lege-testuetatik testu akademikoetara).

Gako-hitzak: birformulazioa, birformulatuak esplikatiboak, diskurtso-markatuak, hizkera juridikoa, testu akademikoak, lege-testuak, *alegia, hau da, hots*.

En este artículo analizaremos conjuntamente la 'reformulación' y el discurso jurídico. Dicho con más detalle, estudiaremos el peso que tienen los reformuladores explicativos en el discurso jurídico en euskera e investigaremos como se utilizan los reformuladores explicativos (*alegia, hau da, hots...*)

En el primer apartado del artículo, presentamos las características de la investigación. En el segundo apartado, explicamos qué es la reformulación, cómo se realiza y qué estructura tiene; explicamos cuáles son principales tipos de reformulación y cuáles son los reformuladores principales en euskera. En el tercer apartado, basándonos en un amplio corpus, hemos analizado cómo se utilizan los reformuladores explicativos en el lenguaje jurídico (textos legales y textos académicos) y en la lengua general. El cuarto apartado está dedicado a las conclusiones: en el discurso jurídico explicativo se recurre mucho a la reformulación y al uso de reformuladores explicativos; hemos comprobado que algunos reformuladores son los más utilizados, y que su grado de utilización cambia en función de la disciplina y del género; por otro lado, la aparición de los reformuladores explicativos y sus funciones discursivas cambian dependiendo del tipo de texto (es decir, de los textos legales a los textos académicos).

Palabras clave: reformulación, reformuladores explicativos, marcadores del discurso, lenguaje jurídico, textos académicos, textos legales, *alegia, hau da, hots*.

Au premier point de l'article nous présentons les caractéristiques de la recherche. Au second point nous expliquons ce qu'est la reformulation, comment elle est faite et quelle est sa structure; nous expliquons quels sont les types principales de reformulation de base et quelles sont les principaux reformulateurs en langue basque. Au troisième point, nous basant sur un vaste corpus, nous avons analysé comment sont utilisés les reformulateurs explicatifs dans la langue juridique (textes légaux et textes académiques) et dans la langue générale. Le quatrième point est consacré aux conclusions: dans le discours juridique explicatif on recourt très souvent à la reformulation et à l'usage des reformulateurs explicatifs; nous avons constaté que certains reformulateurs sont plus utilisés que d'autres et que leur niveau d'usage change en fonction de la discipline et du genre; par ailleurs l'apparition des reformulateurs explicatifs et leurs fonctions discursives changent selon le type de texte (c'est-à-dire des textes légaux aux textes académiques).

Mots-clés : reformulation, reformulateurs explicatifs, marqueurs de discours, langue juridique, textes explicatifs, textes légaux, *alegia, hau da, hots*.

In this piece of research we have connected the topics of 'reformulation' and 'legal language'. To be more precise, we have examined the weight given to explanatory reformulators in legal discourse and how the reformulators (*alegia, hau da, hots...*) are used.

In the first section of the article we present the main features of the research. In the second section we explain what constitutes reformulation, how it is effected and how it is structured; we also present the major types of reformulation and the main reformulators used in Basque. In the third section, based on a broad corpus, a statistical and qualitative analysis of the way explanatory reformulators are used in ordinary and legal language (legal and academic texts) is carried out. Finally, part four is concerned with the results: in explanatory legal discourse (especially in academic texts) reformulation and explanatory reformulators are widely used; we have been able to show that certain reformulators are the most widely used and that their frequency of appearance changes according to subject matter and genre; in addition, the presence of explanatory reformulators and their discursive functions change according to text type (e.g. from legal to academic texts).

Keywords: reformulation, explanatory reformulators, discourse markers, legal language, academic texts, legal texts, *alegia, hau da, hots*.

1. Atarikoa

Azken urteotan berriz ere eztabaidagai bihurtu den eta pil-pilean dagoen ikerlerro batean kokatzen da gure lan hau. Diskurtso-markatzaileez dihardugu artikulu honetan. zehatzago esanda, diskurtso-markatzaile mota batez: birformulatzaileez. Eta, zehazkiago, birformulatzaileen sail paradigmatico bat dugu aztergai: birformulatzaile esplikatiboak (*alegia, hau da, hots...*). Bestalde, aztergai hori diskurtso juridikoaren azterketarekin uztartu dugu gure ikerlanean.

Bi helburu nagusi ditu gure ikerlanak: a) birformulatzaile esplikatiboak aldagai edo parametrotzat harturik eta jomugan diskurtso juridikoko bi testu mota (lege-testuak eta testu akademikoak) izanik, egiaztatzea ea ba ote dagoen nolabaiteko korrelaziorik testu motaren eta birformulatzaileen erabileren artean; b) deskribatzea eta azaltzea nola eta zer eginkizun diskurtsibotarako erabiltzen diren birformulatzaile esplikatiboak lege-testuetan eta zuzenbideko testu akademikoetan, eta erabilerok hizkera orokorrekoekin alderatzea, bai kuantitatiboki eta bai kualitatiboki. Azken batean, helburu orokorra da birformulatzaile esplikatiboen azterketaz baliatzea diskurtso juridikoa ezaugarritzeko.

Beraz, diskurtsoaren azterketari eta aldakortasunari lotuta dago gure lana. Izan ere, nahikoa arrazoizkoa dirudi pentsatzeak testu motak (gure kasuan, lege-testuak vs testu akademikoak) nolabait baldintzatu dezakeela diskurtso-markatzaileen erabilera, bai kantitateari, bai nolakotasunari dagokienez (Loureda eta Acín, 2010: 38²; Larringan, 2007: 123).

² «La variación se da en la medida en que parece una hipótesis razonable, ya demostrada en varios estudios, que en relación con los diferentes tipos de texto (o secuencias textuales) se da, desde un punto de vista cualitativo el predominio de una u otra función de los marcadores; por su parte, desde un punto de vista cuantitativo podría suponerse una variación en el índice de frecuencias del empleo de estas unidades supraoracionales.» (Loureda eta Acín, 2010: 38).

Metodologiari dagokionez, EUDIMA ikerketa-proiektuko corpus zabalaz baliatu gara testuak eta datuak aztertzeko. Egungo euskara zaindua islatu nahi du EUDIMA corpusak³ eta honela osatuta dago⁴:

1. taula. EUDIMA corpusaren osaera

A1.	ZIO corpusa ¹	1,0 milioi testu-hitz
A2.	EHUko eskuliburu itzuliak	5,5 milioi testu-hitz
A3a.	Zuzenbidea / lege-testuak	4,1 milioi testu-hitz
A3b.	Zuzenbidea / testu akademikoak	2,5 milioi testu-hitz
A4.	Pentsamenduaren Klasikoak ²	10,7 milioi testu-hitz
B1a.	EPD liburuak ³	10,2 milioi testu-hitz
B1b.	EPD prentsa ⁴	10,5 milioi testu-hitz
B2.	ZT Corpusa ⁵	6,6 milioi testu-hitz
C1.	ETBko dokumentalak	0,5 milioi testu-hitz
C2.	Goenkale corpusa ⁶	11,0 milioi testu-hitz
	GUZTIRA	62,6 milioi testu-hitz

Jatorrizkoak	35,7 milioi testu-hitz
Itzulpenak	26,9 milioi testu-hitz
GUZTIRA	62,6 milioi testu-hitz

¹ <http://www.ehu.es/ehg/zio/>

² <http://ehu.es/ehg/pkc/>

³ <http://ehu.es/ehg/epd/>

⁴ <http://ehu.es/ehg/epd/>

⁵ Zientzia eta Teknologiaren Corpusa: <http://www.ztcorpusa.net/cgi-bin/kontsulta.py>

⁶ <http://ehu.es/ehg/goenkale/>

³ Guztira 62,6 milioi testu-hitz ditu corpusak eta halako oreka bat lortu da testu itzulien eta jatorrizkoen artean. Testu mota batzuk biltzen ditu (akademikoak, lege-testuak, prentsa, saiakera) eta, bereziki, ahozko hizkuntzara hurbiltzen diren bi azpicorpus ditu: alde batetik, Goenkale, zeinak hein batean lagunarteko erregistroa imitatzen baitu; eta, bestetik, ETBko dokumentalen corpusa, zeinak, entzunak izateko testuen bidez, erregistro zaindua islatzen baitu.

⁴ Corpusari dagokionez, eskerrak eman behar dizkiogu lehenik Ametzagaña I+G+b taldeko Josu Landari, corpusa arakatzeko tresna ezin hobea –eta gure beharretara egokitua– sortu eta ikertal-

Euskarazko bibliografian biziki azpimarratu da aspaldi honetan (Esnal, 2002a, 2002b; Euskaltzaindia, 2008; Urrutia, 2008) nola erabil daitezkeen modu estrategikoan diskurtso-markatzaileak komunikazio eraginkorragoa lortzeko (atzera-kargaren arazoa konpontzeko, perpausen segmentazioa markatzeko...). Orobat azpimarratu da zer nolako garrantzia duten markatzaileek testuaren «arkitekturan». Baina gure artean ez da behar beste azpimarratu, gure iritziz, diskurtso-markatzaileei buruzko ikerketa teorikoez aspalditik nabarmendu duten ideia bat (Blakemore, 2002; Martín Zorraquino eta Portolés, 1999: 4057; Martí Sánchez, 2011: 18-19; Aschenberg eta Loureda, 2011b: 13): alegia, diskurtso-markatzaileek berez dutela funtzio komunikatibo estrategikoa; izan ere, hartzaileari diskurtsotik inferentziak ateratzen laguntzeko gida edo jarraibide moduko batzuk eskaintzea da diskurtso-markatzaileek duten funtzio diskurtsibo berezkoa.

Artikulu honek ikerlerro interesgarri bat jorratzen du diskurtso espezializatuaren azterketan. Izan ere, orain ari dira sortzen eta finkatzen euskarazko hizkera juridikoan hizkuntza-usadio eta tradizio diskurtsiboak, eta alderdi horretatik ezin emankorragoa izan daiteke diskurtso-markatzaileen azterketa. Egia esan, Andres Urrutiaren lan bat (Urrutia, 2008) dago gure ikerlanaren abiaburuan, han esaten baitu Urrutiak (2008: 537) *–Kode Zibila* testura mugaturik bere azterketa– birformulatzailerik esplikatiboak «zioen azalpenetan» azaltzen direla batik bat. Ildo horri jarraiki, ikerlan honetan, birformulazioaren eta birformulatzailerik erabilera aztertu dugu, azken hamarkadan euskaraz eman diren lege-testu eta zuzenbideko testu akademiko esangarrienei erreparatuz, betiere, birformulatzailerik esplikatiboek diskurtso juridikoan duten erabilera inguramendu zabalagoan ezaugarritzeko.

dearen eskura jarri duelako; orobat eskertu behar diogu UPV/EHUko Euskara Institutuaren zuzendari Pello Salabururi (<http://www.ei.ehu.es>), Institutuaren corpusak gure zerbitzura jarri dituelako (ZIO, Pentsamenduaren Klasikoak, Ereduzko Prosa Dinamikoa eta Goenkale). UPV/EHUko Euskara Zerbitzuaren zuzendari Jesus Mari Makazagari eskertu behar diogu, halaber, EHUko ikasliburu itzuliak gure eskura jarri izana. EITBrekiko lankidetzari esker eta, zehazki, Asier Larrinagaren bitartekotzari esker eskuratu dugu ETBko dokumentalen corpora. Elhuyar Fundazioarekiko lankidetzaren baten bidez eskuratu ditugu Zientzia eta Teknologiaren corpuseko testuak (ZTC). Eta, azkenik –baina ez azken–, Joseba Ezeizaren Garalex corpusetik (<http://www.hizlan.org/db-zuzenbidea/>) eskuratu ditugu zuzenbideko testuak.

Artikulu honela egituratuta dago: lehen atalean ikerlanaren nondik norakoak aurkeztu ditugu; bigarren atalean, birformulazioari eta birformulatzaileriei buruzko sarrera orokor bat eskaintzen dugu; hirugarren atalean, estatistikoki eta kualitatiboki aztertu da nola erabiltzen diren hizkera juridikoan (lege-testuetan eta testu akademikoetan) eta hizkera orokorrean birformulatzailerien esplikatioak; laugarren atala, azkenik, ondorioei eskainita dago.

2. Birformulazioa

Atal honetan, labur bada ere, saiatuko gara azaltzen birformulazioan gauzatzen den eragiketa diskurtsiboa zertan den, zer egitura duen eta zehazki nola eta zer markatzailearen (birformulatzaileraren) bidez gauzatzen den.

2.1. Diskurtso-markatzaileak eta birformulatzailerak

Euskaraz eta euskarari buruzko bibliografian –inguruko hizkuntzetan bezalatsu⁵– termino bat baino gehiago erabili izan dira kategoria bera izendatzeko: *diskurtso-markatzaileak* (Euskaltzaindia, 2008), *testu-markatzaileak* (Euskaltzaindia, 2008), *testu-antolatzaileak* (Larringan, 1996; Larringan, 2007; Euskaltzaindia, 2008)... Baina okerrena izan ohi da termino-aniztasun horren atzean hurbilketa teoriko eta kontzeptualizazio desberdinak ezkatatu ohi direla (Martí Sánchez, 2011: 2).

Lan honetan geure egiten dugu Martín Zorraquino-k eta Portolés-ek (1999: 4057) eman zuten definizioa:

Los marcadores del discurso son unidades lingüísticas invariables, no ejercen una función lingüística en el marco de la predicación oracional –son, pues, elementos marginales– y poseen un contenido coincidente en el discurso: el de guiar, de acuerdo con sus distintas propiedades morfosintácticas, semánticas y pragmáticas, las inferencias que se realizan en la comunicación.

⁵ Ikus, besteak beste: Vázquez Veiga, 2011; Martín Zorraquino y Portolés, 1999: 4057; Garcés, 2008: 14-15; Loureda y Acín, 2010: 20.

Definizio horretan diskurtso-markatzaileen bi ezaugarri bereizgarriak⁶ geratzen dira azpimarratuta (Martí Sánchez 2011: 18-19): alde batetik, diskurtso-markatzaileek duten jarraibide-, prozedura- edo prozesatze-esanahia⁷ eta -balioa azpimarratzen da (hots, esatariaren eta hartzailearen arteko elkarlana eta enuntziatuen interpretazioa gidatu behar duen lankidetz); beste alde batetik, perpausaren esparruan inolako funtzio sintaktikorik ez betetzea da diskurtso-markatzaileen bigarren ezaugarri funtsezkoa. Ez da, beraz, gramatika-kategoria berri bat, ezpada kategoria funtzional, diskurtsibo edo pragmatiko «berri» bat (Loureda eta Acín, 2010: 32; Real Academia Española, Asociación de Academias de la Lengua Española, 2010: 2355; Martí Sánchez, 2011: 18-19). Aschenberg-ek eta Loureda-k argitzen dutenez:

Y comunicar es un baile en el que toman parte dos: según los argumentos de la Teoría de la relevancia (...), el hablante traslada al oyente la intención de comunicar algo y el oyente realiza razonamientos inferenciales. En efecto, cuando hablamos, el contenido expresado raramente se limita a lo dicho, de ahí que la captación del sentido necesite de un proceso interpretativo que se apoye en la información contextual actualizada. (Aschenberg eta Loureda, 2011: 12)

Lo importante, como se ha señalado en numerosas ocasiones, es que hay un conjunto de «pequeñas palabras», las partículas discursivas o marcadores del discurso, que tienen precisamente esta función. En efecto, en el ámbito de la comunicación ostensivo-inferencial no existe una heurística perfecta, una decodificación automática. De ahí que se necesiten guías: en una teoría que asume la construcción de enunciados que son sometidos a cómputos inferenciales es natural

⁶ Diskurtso-markatzaileen beste ezaugarri batzuk honako hauek dira (Martín Zorraquino, 2010: 104-113): a) unitate aldagaitzak eta ongi finkatuak izatea; b) tarteki gisa agertzea aparteko enuntziatuetan (modifikatzaile, azalpen eta elementu parentetikoak agertu ohi diren posizioan); c) izaera funtzional eta opakoa izatea (esapideen kasuan esanahi ez-konposizionala); d) aldaketa-prozesu baten emaitza izatea (gramatikalizazioa eta lexikalizazioa); e) diskurtso-markatzaileen azpimultzoetako batean modu koherentean sailkatu ahal izatea (birformulatzailak, egitura-tzaileak, emendiozkoak...).

⁷ «El significado procedimental, también llamado de procesamiento, es la información sobre cómo procesar el significado conceptual, el cual se define a su vez como la información léxica sobre el contenido proposicional de los enunciados» (Loureda y Acín, 2010: 35).

que haya expresiones que restrinjan esas operaciones: estas restricciones guiarán al oyente hacia los efectos esperados y le ahorrarían esfuerzo de procesamiento (Blakemore 1997: 95). Estas expresiones que restringen la interpretación de las unidades con significado representacional son los *marcadores del discurso*. (Aschenberg y Loureda, 2011: 13)

Hurrengo atalean azalduko denez, diskurtso-markatzailetzat jo behar ditugu birformulatzaileak (*alegia, hots, hau da, erran nahi baita, bestela esanda...*), kategoria funtzional horren bi ezaugarri bereizgarriak dituztelako: lehenengo eta behin, prozesatze-esanahia dutelako eta haien eginkizuna hartzaileari diskurtsoaren interpretazioan eta inferentzietan laguntzea delako; bigarrenik, agertzen diren perpausean funtzio sintaktikorik betetzen ez dutelako. Zehatzago esanda, diskurtso-markatzaileen artean bereizi ohi diren azpimultzoetako bat osatzen dute birformulatzaileek.

2.2. Birformulazioa eta birformulatzaileak

Behin puntu honetara iritsita, birformulazioa eta birformulatzaileak zer diren azaldu beharrean gaude. Hartzaileari edo solaskideari aurreko diskurtso-atala egokiro interpretatzen laguntzeko gauzatzen den diskurtso-eragiketara bat da birformulazioa eta honetan datza funtsean:

Desde nuestra perspectiva, el proceso de reformulación consiste en volver sobre el contenido de un miembro o de un enunciado anterior o sobre el acto de enunciación, para expresarlo de otra manera equivalente o distinta. Se trata de un procedimiento de reinterpretación discursiva que evidencia la intencionalidad del hablante de guiar al interlocutor para que interprete el mensaje de la manera adecuada. (Garcés, 2008: 75)

Diskurtsoa antolatzeko prozedura bat da birformulazioa: haren bidez esataria aurreko diskurtso-atalera edota aurreko enuntziatio-ekintzara itzultzen da, hura berrinterpretatzeko edo bestelako ikuspegi batez aurkezteko (Garcés, 2009: 17). Birformulazioa, beraz, diskurtsoan lehenago adierazitakoa bestelako hitzez berradieraztea edo birformulatzea da. Hiztunak bere diskurtsoaren kontzientzia hartzen du eta –egin duen formulazioa guztiz

gogobetegarria iruditu ez zaiolako, edo nahita diskurtsoa hala antolatu nahi duelako eta efektu diskurtsibo jakin bat lortu nahi duelako⁸-, beste hitz batzuen bidez edo ustez argiagoa den formulazio baten bidez saiatzten da adierazten hartzaileari adierazi beharrekoa.

Hiztunak berak jar dezake abian (Garcés, 2008: 69; Garcés, 2009: 17-18) birformulazio-prozesua ('autobirformulazioa'), edo beste hiztun edo solaskide batek ('heterobirformulazioa').

Eta zeregin horretarako, besteak beste, birformulatzailerak baliatzen ditu hiztunak. Hona hemen zer atal bereizten diren ohiko birformulazioetan:

Duela bi urte, 2007ko otsailean, *Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa* «transgenikorik gabeko eremu» izendatu zituen *Jaurlaritzak*; **alegia**, **pertsona** edo **abereentzako elikagai izan zitezkeen landaketa transgenikoen aurka agertu zen**.

Birformulakizuna ⁹ [p]	(...) Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa «transgenikorik gabeko eremu» izendatu zituen <i>Jaurlaritzak</i> ;
Birformulatzailerak	alegia
Atal birformulatzailerak [q]	pertsona edo abereentzako elikagai izan zitezkeen landaketa transgenikoen aurka agertu zen [<i>Jaurlaritza</i>].

Beraz, honelakoa da birformulazioen egitura (Garcés 2009: 23):

A atala + (lokailua) + B atala
[birformulakizuna] [birformulatzailerak] [atal birformulatzailerak]

Atal birformulatzailerak, bestalde, enuntziatu zati bat zein enuntziatu oso bat izan daiteke, eta askotariko kategoria sintaktiko edo lexikokoa (perpausa, izen-sintagma, aditz-sintagma, izena, aditza, adberbio...). Birformulakizuna, be-

⁸ Garcés-ek (2009: 18) azaltzen duenez: «Cabe diferenciar, en este sentido, el papel que cumple la reformulación en el discurso no planificado, destinado principalmente a resolver problemas de comprensión comunicativa, de la función que desempeña en el discurso planificado, donde se convierte en un mecanismo para alcanzar determinados efectos contextuales, no transmitidos por la primera formulación (Blakemore, 1993, 2002).»

⁹ Adibide zenbakitu guztietan letra etzanaren bidez markatu dugu birformulakizuna; letra lodiz eman dugu atal birformulatzailerak; eta letra lodiz eta azpimarratuta, birformulatzailerak.

rebat, enuntziatu zati bat zein enuntziatu oso bat izan daiteke (eta are enuntziatu batzuk ere, laburbiltzaileen kasuan). Bi atalen artean sarri egoten da kidetasun edo paralelismo funtzionala (bereziki, birformulazio partzialetan¹⁰).

Gehienetan agerian daude diskurtsoan birformulazioaren bi atalak (birformulakizuna eta atal birformulatzailerik), baina kasu batzuetan –bereziki, birformulatzailerik urrutizailerik– isilean geratzen da birformulakizuna. Hala eta guztiz ere, pentsa daiteke birformulatzailerik beti betetzen dutela lokailu-zeregina (Garcés, 2008: 28); izan ere, ageriko atalak lotzen dituzte gehienetan eta batzuetan isildutako enuntziatu batera bidaltzen gaituzte.

Egia esan, ez da beti ezinbestekoa birformulatzailerik erabiltzea birformulazioa gauzatu dadin¹¹. Birformulatzailerik esplikatioak errazago ken daitezke baldin eta bi atalen artean baliokidetasun semantikoa badago¹²; ezin dira ezabatu, ordea, inferentzia-erlazioa egonez gero. Bestelako birformulazio motak (laburbiltzea, urrutizailerik, zuzenketa) adierazten dituzten birformulatzailerik, ostera, agerian egon behar dute eskuarki, osterantzean diskurtsoaren interpretazioa ez da berdina eta.

Goragoko adibidean, esate baterako, *alegia* birformulatzailerik kenduta ere berdin-berdin ulertuko genuke bigarren enuntziatua: hots, ez genuke arazorik izango konturatzeko bigarren enuntziatuan nolabaiteko azalpena datorrela, edo, bestela esanda, ez genuke arazorik izango bigarren enuntziatua aurreko enuntziatuaren azalpen edo birformulaziotzat ulertzeko. Alde horretatik esan daiteke birformulatzailerik diskurtsoaren hariak eta norabideaz hobeto jabetzeko bide-seinale moduko batzuk direla: gure adibidean, bigarren enuntziatuaren hasieran mugarri gisa agertzen den *alegia* birformula-

¹⁰ Birformulazio partzialetan, birformulakizuneko enuntziatuaren zati bat birformulatzen da (infra 3.1.3.).

¹¹ Birformulakizunaren eta atal birformulatzailerik artean dagoen erlazioaren arabera, errazagoa, zailagoa edo are ezinezkoa izan daiteke birformulatzailerik ezabatzea (ikus Garcés, 2009: 24-25).

¹² Beherago azalduko denez (infra 2.4.), birformulazio parafrastikoan errazagoa da birformulatzailerik ezabatzea. Hala, bada, birformulazioa birformulatzailerik bidez edo birformulatzailerik gabe gauzatzen den kontuan harturik, autore batzuek bi birformulazio parafrastiko mota bereizten dituzte: birformulatzailerik gabe gauzatzen den '*funtzio* diskurtsibo parafrastikoa'; eta birformulatzailerik bidez bideratzen den '*eragiketa* diskurtsibo parafrastikoa' (Garcés, 2009: 19).

tzaileak –azalpenezko birformulatzailerak baita– argiro adierazten dio hartzaileari ondoren nolabaiteko azalpena edo berrinterpretazioa datorrela.

Bereizketa bat egin beharra dago birformulazioaren edukiaz. Gehienetan birformulakizunaren edukiari edo adieraziari dagokio atal birformulatzaileran egiten den formulazio berria. Baina batzuetan enuntziatio-ekintza bera –esatea bera– bihurtzen da birformulazioaren helburu: horixe gertatzen da, esate baterako, *hobeto esanda*, *hobeki esanda* eta antzerako birformulatzailerak zuzentzaileak edota *labur esanda* moduko birformulatzailerak erabiltzen direnean (ikus Garcés, 2008: 78-79).

Azpitarratzekoak dira birformulatzailerak diskurtso-markatzaileekin partekatzen dituzten ezaugarriak:

- a) prozesatze-esanahia izatea eta hartzailea inferentzietan gidatzeko funtzioa izatea
- b) perpausean funtzio sinktatorik ez betetzea
- c) aldagaitzak izatea
- d) agertzen diren enuntziatua aurreko enuntziatuarekin lotzea

Baina zein dira birformulatzailerak bereizgarriak? Hona hemen bereizgarri nagusietako batzuk (Garcés, 2008: 81-85):

- a) aurreragoko diskurtso atal bat berrinterpretatzeko prozesu batean parte hartzea (baliokidetzatik zuzenketaraino joan daiteke berrinterpretazioa);
- b) izaera polifonikoa edo ahots desberdinak agertzea (izan ere, birformulazioa den atzera itzultze horrek beti dakar ikuspuntu berri bat, aurrekoarekin bat etor daitekeena edo ez);
- c) birformulakizunaren eta atal birformulatzaileraren artean berdintasuneko erlazio hierarkikoa izatea (bi enuntziatuak alderantzizkagarriak badira¹³) edo menderakuntzazkoa izatea (atal birformulatzailerak bada benetan balio duena diskurtsoaren harian);
- d) birformulatzailerak esanahi berezia (alde batetik, aurreko enuntziatua ikuspuntu berri batetik berrinterpretatzeko jarrai-

¹³ Nolanahi ere, informazioaren ikuspegitik diskurtsoan beti nagusitzen da –hots, nabarmenduta geratzen da– atal birformulatzailerak, baita bi enuntziatuak alderantzizko hurrenkeran eman daitezkeenean ere (baliokidetzak semantikoan oinarritzen diren birformulazio esplikatioetan, esaterako),

- bideak ematen dizkigute; bestetik, informazio-egiturarekin zerkusua duten jarraibideak ematen dizkigute –mintzagaiaren jarraipena edo aldaketa–);
- e) mugikortasuna da diskurtso-markatzaileen beste ezaugarri bat, baina birformulatzaileen kasuan banan-banan aztertu behar da posizioa.

2.3. Birformulatzaileen sailkapenak

Birformulakizunaren eta atal birformulatzailearen artean dagoen erlazio motaren arabera, birformulatazailer mota batzuk bereizten dira. Autore batzuek (Martín Zorraquino eta Portolés, 1999; Martí Sánchez, 2008) lau birformulatazailer mota nagusi hauek bereizten dituzte:

- a. ‘Explicativos’: *o sea, es decir, a saber, esto es...*
- b. ‘De rectificación’: *mejor dicho, mejor aún, más bien...*
- c. ‘De distanciamiento’: *en cualquier caso, en todo caso, de todos modos...*
- d. ‘Recapitulativos’¹⁴: *en suma, en conclusión, en definitiva, en fin, al fin y al cabo...*

Fuentes-ek (2009), berriz, honako hiru azpisail hauek baino ez ditu bereizten¹⁵:

- a. ‘Explicación’: *o sea, es decir, a saber, esto es, dicho de otra manera...*
- b. ‘Corrección’: *mejor dicho, antes bien, por mejor decir, bueno 3, digo 1, en fin 2...*
- c. ‘Concreción’: *concretamente, en concreto 1, en particular 1, específicamente, particularmente 4, sin ir más lejos 1...*

Aurreko sailkapenak uztartuz, euskarazko birformulatazailerak honela sailkatzea proposatzen dugu:

¹⁴ ‘De generalización’ deitzen die Martí Sánchez-ek (2008).

¹⁵ Birformulatazaileretatik kanpo uzten ditu gainerakoak: kontzesiboen sailean sartzen ditu *en cualquier caso, en todo caso, de todos modos* eta antzekoak; eta aparteko sail batean sartzen ditu ‘recapitulativos’ direlakoak (*en suma, en definitiva, en conclusión...*).

2. taula: Euskarazko diskurtso-markatzaile birformulatzailen sailkapena

BIRFORMULATZAILEAK	
a) Esplikatiboak	<i>alegia hau da hots erran nahi baita... bestela esanda beste era batera esanda... beste modu batera esanda... beste hitz batzuetan esanda... beste hitz batzuetan (...)</i>
b) Zehaztaileak («de concreción»)	<i>zehatzago esanda... zehatz-mehatz zehazkiago hurrenez hurren (...)</i>
c) Laburbiltzaileak («recapitulativos»)	c1) Laburbiltzaile hutsak <i>laburbilduz, laburbilduta... labur esanda, labur esateko... hitz batean hitz gutxitan hitz batean esateko (...)</i>
	c2) Berrazterketa edo berrausnarketa adieraztekoak («de reconsideración») <i>azken batean azken finean azken buruan (...)</i>
d) Urruntzaileak («de distanciamiento»)	<i>hala eta guztiz ere... dena dela, dena den... edozein modutan (ere)... nolanahi (ere)... edozelan (ere)... edozein kasutan (ere) esanak esan (...)</i>
e) Zuzentzaileak («de corrección»)	<i>hobeto esanda... (edo) hobeto are hobeto, are hobeki... barkatu zer diot? (...)</i>

Birformulazioa den atzera itzultze horretan modu askotara berrinterpretatzen da aurreko enuntziatua: batzuetan, azalpenak ematen dira; beste batzuetan, zehaztu egiten da informazioa; edo laburbildu egiten da esandakoa; zenbaitetan, esataria urundu egiten da esandakotik; edo zuzendu egiten da adierazitakoa. Horiek horrela, birformulatzailen eginkizuna hau da: enuntziatuen arteko lotura gauzatzea eta haien artean zer-nolako erlazio semantiko-pragmatikoa dagoen agerian uztea (azalpena, zehaztapena, laburbilketak, berrausnarketa, zuzenketa).

Bestalde, aurreko sailkapenean bada halako mailaketa bat birformulazioaren urruntze-mailari dagokionez. Alegia, urruntze txikienetik handienera, honela sailkatuko genituzke birformulatzailak: a) esplikatioak (*hau da, alegia, hots...*); b) zehaztaileak (*hobeto esanda, zehazkiago, zehatz-mehatz...*); c) laburbiltzaileak (*laburbilduz, labur esanda...; azken batean, azken finean...*); d) urruntzaileak (*edozein modutan ere, nolana ere, dena dela, hala ere...*); e) zuzentzaileak (*hobeto esanda, (edo) hobeto...*). Hots, eskala horretan hurrenez hurren urruntze-maila handiagoa adierazten da aurreko formulazioari buruz, parafrasitik¹⁶ zuzenketaraino baikoaz birformulazioan. Geroago ikusiko dugunez, birformulatzaila esplikatioen erabilera gehienak –baina ez guztiak– bete-betean sartzen dira birformulazio parafrastikoen barruan.

2.4. Birformulatzaila esplikatioak. Birformulazio parafrastikoa eta ez-parafrastikoa

Birformulazio-eragiketak askotarikoak izan daitezke eta haietako bat, esplikatioa deritzona, azalpenak ematean datza: halakoetan atal birformulazioan argiagotu egiten da birformulakizunean adierazitakoa. Euskaraz

¹⁶ Birformulatzailak sailkatzean, beste irizpide orokorrago bat oinarri hartuta, 'parafrastiko/ez-parafrastiko' bereizkuntza (gutxi gorabehera, 'baliokidetza diskurtsiboa/baliokidetzarik eza') proposatu dute autore batzuek (ikus infra 2.4.): irizpide horren arabera, parafrastikotzat hartuko genituzke, zalantza handirik gabe, esplikatioak (esplikatio batzuk, behinik behin); eta beste muturrean, ez-parafrastikotzat hartuko genituzke zuzentzaileak.

honelako birformulatzailerak erabili ohi ditugu azalpenezko birformulazioak bideratzeko: *alegia, hau da, hots, erran nahi baita, bestela esanda...*

Bada, birformulazio-prozesuetan bi erlazio mota bereizi izan dira (ikus, besteak beste, Gülich eta Kotschi, 1983, 1987, 1995; Bach, 2001; Garcés, 2008: 71-75): birformulazio parafrastikoa eta ez-parafrastikoa.

Autore batzuek (Rossari 1990, 1997) birformulatzaileraren jokaera semantiko-pragmatikoan oinarritzen dute birformulazio parafrastiko eta ez-parafrastikoen arteko bereizkuntza. Hurbilketa horren arabera, baldin birformulatzailerak identitatezko erlazioa ezartzen badu (birformulatzailerak esplikatiiboekin gertatzen denez), parafrastikoa izango da birformulazioa. Aldiz, birformulatzailerak nolabaiteko distantzia markatzen badu, birformulazio ez-parafrastiko baten aurrean egongo gara, eta hurrenez hurren distantzia gero eta handiagoa ezartzen duten birformulatzailerak sail hauek bereizten dituzte: laburbiltzailerak, berrausnarketa adieraztekoak, urruntzailerak eta zuzentzailerak. Edonola ere, perspektiba enuntziatiiboaren aldaketa eta enuntziatuen arteko distantzia dira birformulazio ez-parafrastikoen ezaugarri funtsezkoenak.

Birformulazio parafrastikoa, funtsean, hierarkia bereko bi diskurtso-atalen artean ezartzen den baliokidetzak diskurtsiboan oinarritzen da: batzuetan (2) enuntziatuen arteko kidetasun edo baliokidetasun semantikoan oinarritzen da (halakoetan, birformulatzailerak lagungarri dira, baina ez ezinbestekoak); beste batzuetan (3), berriz, testuinguru diskurtsibo jakin batean eta baliokide gisa aurkezten diren enuntziatuen artean gertatzen da identitatea edo parafrasia (halakoetan ezinbestekoa da birformulatzaileraren agerpena, inferentzia-prozesu baten ondorioz ezartzen baita enuntziatuen arteko identitatea).

- (2) Hain zuzen ere, bere helburuen artean jarri du botatzen eta **errausten –alegia, deuseztatzen–** den zabor kopurua murriztea. [EPD, Berria]
- (3) Bloke horretan *Arantzazu eraikinaren mailan –larrialdi zerbitzuen mailan, alegia–* lau ebakuntza gela berri daude. [EPD, Berria]

Adibidez, azken testuan (3) *alegia* birformulatzailerak esplikatiiboari esker badakigu identitate-erlazioa ezartzen dela birformulakizunaren eta atal birformulatzaileraren artean. Baina birformulatzailerak (*alegia*) kenduko bagenu,

ez genuke jakingo nola interpretatu tartekian datorrena: zehaztapentzat hartzea litzateke, seguru asko, beste aukera bat.

Garcés-ek (2009: 20) argitzen duenez:

En este sentido, la relación parafrástica no es una propiedad de las formulaciones lingüísticas, sino el resultado de una estrategia cognitivo-lingüística de los hablantes que proceden a identificar momentáneamente las significaciones de los enunciados vinculados, anulando las diferencias en beneficio de las semejanzas (Fuchs, 1994: 174).

3. Birformulatzaile esplikatiboak hizkera juridikoan

Atal honetan, birformulatzaile esplikatiboek hizkera juridikoan betetzen dituzten funtzio diskurtsiboak aztertuko ditugu. Horretarako, lehen-lehenik hizkera orokorraren deskripziotik abiatuko gara eta gero generoaren arabera (lege-testuak/testu akademikoak) aztertuko ditugu birformulatzaile esplikatiboen agerpen-maiztasuna eta funtzio diskurtsiboak.

3.1. Birformulatzaile esplikatiboen balio nagusiak hizkera orokorrean

Azpiatal honetan, birformulatzaile esplikatiboek hizkera orokorrean izan ohi dituzten balio nagusiak aztertuko ditugu.

3.1.1. *Birformulatzaile esplikatiboen balio oinarritzkoa*

Azalpenezko birformulazioak bideratzeko erabiltzen dira birformulatzaile esplikatiboak: hots, aurreragoko diskurtso atal batean adierazitakoa azaltzera, argitzera, osatzera edo zehaztera datorren diskurtso atal bati bide egiteko. Birformulatzaile esplikatiboez baliatzen da esataria esan berri duena modu argiago batez birformulatzeko: haien bidez esatariak ohartarazten edo iragartzen dio hartzaileari –edo are bere buruari– lehenago adierazi duenari buruzko azalpen bat datorrela birformulatzaile esplikatiboak txertatzen duen diskurtso atalean.

Beraz, birformulatzaile esplikatiboen bidez aurreragoko enuntziatu batean –eskuarki, aurreko enuntziatuan– esandakoa birformulatzen da, adierazitakoa argiagotzeko edo azaltzeko.

Argiagotu nahi den aurreragoko diskurtso atalari ‘birformulakizun’ esan-go diogu, eta azalpen berriari ‘atal birformulatzaile’.

- (4) «Katilinarenak» nobelak misteriozko istorioa du kontagai, baina, *intrigazko nobela honetan askatu behar den misterioa ez da ohikoa. **Hau da, nobela honetan misterioa edo intriga ez dago gertakari batzuk argitzearekin loturik.*** [EPD-prentsa, Berria]

Birformulakizuna	(...) <i>intrigazko nobela honetan askatu behar den misterioa ez da ohikoa.</i>
Azalpena: atal birformulatzailea	Hau da, nobela honetan misterioa edo intriga ez dago gertakari batzuk argitzearekin loturik.

- (5) Kasu honetan, gainera, birusak gizakien artean kutsatzeko ahalmena ere bazuela berehala ikusi zuten adituek, eta horrek kezkatu zituen, batez ere; izan ere, gaitza *ohiko gripea hedatu ohi den gisan* hedatuko zela ohartarazi zuten, **oso bizkor, alegia.** [EPD-prentsa, Berria]

Birformulakizuna	(izan ere, gaitza) <i>ohiko gripea hedatu ohi den gisan (hedatuko zela...);</i>
Azalpena: atal birformulatzailea	oso bizkor, <u>alegia</u>.

Azpimarratzekoa da diskurtsoaren harian atal birformulatzailea geratzen dela indartuta edo nabarmenduta; beraz, hura hartu behar da aintzat eta ez birformulakizuna.

Aurreko adibideetan ikus daitekeenez, birformulatzaile esplikatiboen bidez lotzen edo kateatzen diren diskurtso atalak enuntziatu osoak (4) nahiz enuntziatu zatiak (5) izan daitezke, eta askotariko kategoria lexiko eta sintaktikoak (perpausak, izen-sintagmak, aditz-sintagmak, izenak, aditzak...).

3.1.2. *Birformulatzaile esplikatiboen balio nagusiak*

Hona hemen birformulatzaile esplikatiboek¹⁷, oro har, birformulazio-prozesuetan betetzen dituzten funtzio nagusiak:

- a. Identifikazio- eta zehatzapen-funtzioa: birformulakizunari erreferentzia jakin bat esleitzea (erreferentziatzko birformulazioa)

Honetan datza birformulazio-prozesua: birformulatzailearen bidez birformulakizunari erreferentzia jakin bat esleitzen zaio atal birformulatzailean; hots, identifikazio edo zehatzapen bati bide egiteko erabiltzen da. Denborazko eta lekuzko esapideak argitzeko erabiltzen da, edota deiktikoen eta sintagma zehaztugabeen erreferentzia identifikatzeko edo zehazteko.

- (6) *Sortu zenetik -XIX. mende-hasieratik, **alegia-***, biologiak ez dio utzi egituretan barrentzeari eta funtzioetan sakontzeari. [ZIO, Sagua, eulia, eta gizakia, François Jacob / Juan Garzia (EHU, 2004) Orr.: 11]
- (7) *Baina bideratutako dirua Europako batez bestekora hurbiltzen joateko eskatu zuten; **hau da, Barne Produktu Gordinaren %3 ingurura hurbiltzeko.*** [EPD-prentsa, Berria]

ERREFERENTZIA ESLEITU	ZEHATZAPENA (‘especificación’) zehaztugabea > zehaztua	determinatzaile zehaztugabea (<i>bat, batzuk, zenbait...</i> ; mugatzaile generikoa: <i>-a(k)</i>) > zehaztua
	IDENTIFIKAZIOA (DENBORA, LEKUA...) Itxuraz zehaztua > zehaztua...	sintagma mugatua: <i>hori</i> (<i>Azken ikuspuntu hori...</i>)

¹⁷ Atal honetan zerrendatzen diren funtzioak orokorrak dira; hots, birformulatzaile esplikatibo guztiek, oro har, dituzten funtzio komunak. Ez dugu eskaintzen, beraz, birformulatzaile esplikatiboen banan-banako azterketa zehatzik, baizik eta ikuspegi orohartzailea.

b. Birformulakizunaren esanahia edo zentzua argitzea (azalpeneko birformulazioa)

Honetan datza birformulazio-prozesua: birformulatzailaren bidez birformulakizunaren esanahia edo zentzua argitzen da atal birformulatzailan; hots, azalpen bati bide egiteko erabiltzen da. Alde batetik, hitzen esanahia argitzeko erabiltzen da (neologismoak, hitz ezezagun edo teknikoak, atzerriko hizkuntzetakoak, latinetikakoak, eta abar). Bestetik, aurreragoko enunziatu oso baten zentzua edo interpretazioa argitzeko erabiltzen da.

- (8) Harizpi bikoitzeko azido desoxirribonukleikoak oso likatasun intrintseko handia du, eta, ondorioz, oso luzeak eta meheak izaten dira molekulak. DNAk masa molar handia du, eta, hala ere, *degradatu* egin daiteke (**masa molarra gutxitu, alegia**), disoluzioak pipeteatzean agertzen diren zizaila-gradienteak dirrela eta. [EHU, Kimika fisikoa, Silbey, Robert J. et al. (EHU, 2006) 21. kapitulua]
- (9) Jokalari txarrena. Gilbert Arenas. *Izan zen, baina ez da. Alegia, jokalari puska izan zen, baina erosotu egin da, eta kirolarekin zerikusirik ez duten gaiengatik egin da ezagun.* [EPD, Berria]
- (10) Hortzak ere palanka-sistema baten parte dira; 3,5eko desabantaila mekanikoa dago ebakortzetan, eta 1,7koa hagineta, hau da, mastekatze-lan gogorrena egiten den lekuan; haginek, bada, hortzek baino bi aldiz indartsuago estutzen dute. *Ingeniaritzaren ikuspuntutik, zera da muskuluen diseinu-akatsik nabarmenena: uzkurtuz ez bada, ezin dutela lanik egin; bestela esanda, muskuluek tira egin dezakete, baina bultzarik ez.* [ZIO, Giza gorputza lanean, John Lenihan / Irene Aldasoro (EHU, 2006) Orr.: 64]

c. Birformulakizunaren esanahia zabaltzea: definizioa (definiziozko birformulazioa)

Honetan datza birformulazio-prozesua: birformulatzailaren bidez birformulakizuna definitzen da atal birformulatzailan; hots, definizio bati bide egiteko erabiltzen da. Batez ere, terminoak definitzeko erabiltzen da.

- (11) Inflazioaren kontrakoa da *deflazioa*, ***hau da***, **prezioek behera egitea**. [EPD-prentsa, Berria]
- (12) *Sintaxiak*, **hots**, **hitzen ordena bereizteko gaitasunak**, beste animalia guztien gainetik jartzen ditu orka arruntak. [EITB dokumentalak: «Animaliak gure antzeko»]

d. Birformulakizunaren esanahia laburbiltzea: izendapena (izendapenezko birformulazioa)

Honetan datza birformulazio-prozesua: birformulatzailerak erabiliz termino bakar batera ekartzen da atal birformulatuaren birformulakizuneko formulazio luzea; hots, birformulakizuna laburbiltzen duen deitura edo termino bati bide egiteko erabiltzen da birformulatuaren esplikatioa.

- (13) *Hondakinek zabor izateari utz diezaiokete gai organikoak naturaren ziklora itzultzen badira*, ***hau da***, **konpostatzearen bidez**. [EPD-prentsa, Berria]
- (14) *Gizakiok entzuten ez ditugun maiztasun baxuko soinuk*, **hots**, **infrasoinuk** nabaritzeko gai dira. [EITB dokumentalak: «Animaliak gure antzeko»]

e. Beste balio batzuk: ondorioa, dedukzioa, konklusioa... (inferentziako birformulazioa...)

Bestalde, zenbaitetan –testuingurua lagun– aipatutakoez bestelako balioak bereganatu ditzakete birformulatuaren esplikatioak. Izan ere, birformulatuaren esplikatioak, birformulazioaren nolabaiteko hiperonimoak direnez, gai dira erabilera markatuetan bestelako balioak (ondorioa, dedukzioa...) eta bestelako birformulazio motak adierazteko (zuzenketa, laburbilketa, berrazterketa...).

Zenbaitetan eragiketa testual argumentatiboak betetzeko erabiltzen dira birformulatuaren esplikatioak: batez ere, ondorioa eta konklusioa adierazteko. Izatez, hori ez da birformulatuaren esplikatioen funtzio prototipikoa, baina, testuingurua lagun, ondorioa eta bestelako funtzio argumentatiboak bereganatu ditzakete inferentzia-prozesuetan.

Inferentziako prozesua gertatzen denean ondorio edo dedukzio bati bide egiteko erabiltzen da birformulatuzaile esplikatiboa: ondorio subjektiboa, emaitza, dedukzioa... Halakoetan, atal birformulatuzailearen hasieran paratu ohi da markatuzailea eta identifikaziotik edo baliokidetzatik harantzago doa bi atalen arteko lotura: birformulazioa ez da oinarritzen parafasian, inferentzian baizik. Informazioaren egituraren aldetik, iruzkin berriak ez du errepikatzen lehengo mintzagaia, baizik eta aurreko enuntziatutik ondoriozta daitekeen zerbait gaineratzen du: ondorengo testuan, esaterako, birformulakizunean adierazten denetik harantzago doa birformulazioa. Gehiengotan, aurreko enuntziatutik ondoriozta daitekeen zerbait gaineratzen da atal birformulatuzailean.

- (15) Hori indarrean jar dadin, hala ere, Europako Kontseiluak berretsi beharko du Parlamentuaren erabakia. Berdeak alderdiak «erabaki garrantzitsutzat» jo du aste honetan Europako Parlamentuak hartutakoa, eta Gipuzkoako nahiz Bizkaiko foru aldundiei eskatu die «aintzat» hartzeko, eta hondakinei buruzko politika aldatzeko. *«Diputatu gehien-gehienek ukatu dute erraustea berreskuratzeko edo balorizazio energetikoa dela. **Alegia**, errausteari itxura berdea emateari uko egitea oso ona da ingurumenarentzat, eta kolokan jartzen du Euskadin erraustearen alde egiten ari den apustua»* [EPD, Berria]
- (16) Esperanto mintzaira beharko ote dute egun batez Europa egiten duten 25 herri horietakoek? Gauza bat bada ororentzat argi-argia dena, denak lehertuko dituela emeki emeki ingeles mintzairak hola segituz. Alta ez litake hori ere egiazko Europa. *Hortaz, gauza jakina da orai European sartu berri diren hamarrek ez dutela beren mintzairan agertu ahal izan gain hartan beren dozierik. **Hots**, izanen da oraino zer asma denen egiazko errespetu batentzat* [EPD-prentsa, Herria, HERRIAK ETA GIZONAK, SINADURARIK GABE, «HERRIAK ETA GIZONAK» (2004-05-27, 2. orr.)]

Ondorengo laburpen-taulan ikus daitekeenez (ikus 3. taula), birformulatuzaile esplikatibok funtzio metadiskurtsiboak betetzen dituzte batik bat: hiztunak bere jarduera diskurtsiboaren kontzientzia dauka eta diskurtsuaren interpretazio zuzena egin dadin kontrolatu eta gidatu nahi du diskurtsua;

aurreko diskurtso atalaren formulazio argiago edo egokiago bat lortzeko erabiltzen dituen «bide-seinale» modukoak dira birformulatzaile esplikatiboak.

Esanak esan, zenbaitetan eragiketa testual argumentatiboak betetzeko erabiltzen dira birformulatzaile esplikatiboak: batez ere, ondorioa eta konklusioa adierazteko. Izatez, hori ez da birformulatzaile esplikatiboen funtzio prototipikoa, baina, testuingurua lagun, ondorioa eta bestelako funtzio argumentatiboak bereganatu ditzakete inferentzia-prozesuetan.

3. **taula.** Birformulatzaile esplikatiboen funtzio nagusiak

Birformulatzaile esplikatiboak	balio nagusiak
Funtzio metadiskurtsiboak (erabilera ohikoa edo markatu gabea)	a. Erreferentzia esleitzea: identifikazioa / zehaztapena (erreferentziako birformulazioa) b. Esanahia edo zentzua argitzea (azalpenezko birformulazioa) c. Definizio bidez azaltzea (definiziozko birformulazioa) d. Izendapen bidez azaltzea (izendapenezko birformulazioa)
Funtzio argumentatiboak (erabilera markatua edo ezohikoa)	e. Ondorioa/konklusioa (inferentziako birformulazioa) (...)

3.1.3. *Birformulatzaile esplikatiboen sintaxia: erabilera aposatua ('birformulazio partziala') eta aposatu gabea ('birformulazio erabatekoa')*

Birformulatzaile esplikatiboek perpausaren esparruan nahiz perpausetik gorako mailan betetzen dute beren eginkizun diskurtsiboa. Alde batetik, perpaus baten barruan, elementu baten eta elementu hori azaltzera edo zabalzera datorren iruzkin baten arteko lotura semantiko-pragmatikoa ezartzeko erabiltzen dira (erabilera aposatua). Beste alde batetik, testu bateko

perpau biren (edo gehiagoren) arteko lotura semantiko-pragmatikoa (birformulazioa) ezartzeko erabiltzen dira (erabilera aposatu gabea).

1) Birformulatzaile esplikatiboen erabilera aposatua: aurreragoko enuntziatu zati bat (eskuarki, aurreko sintagma) da birformulakizuna.

- (17) Afghanistaneko 29 urteko emazte bat *lapidatu dute*, **hots, harrika hil**, hango araba¹⁸ lege edo ohiduren arabera. [EPD -prentsa, Herria]

Horrelakoei birformulazio «partzial» deritze (Garcés, 2009: 23). Batez ere aposaturik (koma artean) edo tarteki gisa (gidoien edo parentesien artean) eman ohi da atal birformulatzailea. Eta sarri askotan halako paralelismo funtzional bat (eta are sintaktikoa ere) egon ohi da birformulakizunaren eta birformulazioaren artean (*lapidatu dute / hots, harrika hil*): paralelismo funtzional horrek, bestalde, badu zerikusia informazio-egiturarekin, eskuarki birformulakizuneko mintzagai bera iruzkintzera baitator atal birformulatzailea (gure testuan, adibidez, galdera berari erantzuten diote bi enuntziatuek: *Zer egin dute/diote?*). Gainera, gehienetan erlazio parafrastikoa dago bi enuntziatuen artean: hau da, nolabaiteko baliokidetzatza diskurtsiboa egon ohi da birformulakizunaren eta atal birformulatzailearen artean.

2) Birformulatzaile esplikatiboen erabilera aposatu gabea: perpau biren arteko lotura

- (18) Super heroien mundutik at, anti heroiairen figura era sinesgarrian landu izan du, era zitalean batzuetan, bere pertsonaiei sakontasun eta potentzia aipagarria emanez. Hori da, agian, Millerren ezaugarri nagusia (marrazki bikainekin batera): pertsonaien trataera. Sin City filma, guztiagatik, askok eta askok irrikaz espero zuten. AEBetako *zinemak, ostera, berriro ere, urrezko meategietatik gorotza nola atera erakutsi du Sin City errariarekin. Edo, **bestela esanda, interesez betetako istorioari interes guztia nola ken dakioken erakutsi du**, interes hori estetikakeria huts bilakatuz. [EPD-prentsa, Berria]*

¹⁸ Halaxe dator EPDn. Baina, segur aski, *arabiar lege* edo antzeko zerbait adierazi nahi da.

- (19) Daukagun gene arruntenetako bat alderantzizko transkriptasa proteina egiten duena da; *eta proteina horrek, guk dakigula, ez die batere onurarik egiten gizakiei. Hain zuzen, gizakien sisteman oharkabean sartzeko aukera ematen die erretrobirusei (adibidez, GIBari). **Bestela esanda, gure gorputzak energia asko samar gastatzen du guri mesederik egiten ez digun proteina bat ekoizteko, eta proteina horrek, batzuetan, ondo izorratzen gaitu.** Gure gorputzak ez du aukerarik: proteina hori egin egin behar du, geneek agintzen dutelako. Geneen haizeak mugiarazten dituen belaontziak gara. [EPD, Ia denaren historia labur bat, Bill Bryson / Ixiar Iza (Elhuyar, 2009) Orr.: 393]*

Horrelakoei birformulazio «erabatekoa» deritze (Garcés, 2009: 23). Erabilera aposatu gabea, atal birformulatzailea ez doa aposaturik (koma artean) edo tarteki gisa (gidoien edo parentesien artean), baizik eta perpaus berri bat osatzen du. Bestalde, ez da egoten paralelismo funtzionalik birformulakizunaren eta birformulazioaren artean eta ez da iruzkintzen mintzagai bera atal birformulatzailean. Zenbaitetan, gainera, ez da parafistikoa bi enunziatuen arteko erlazioa: esate baterako, birformulakizunaren eta atal birformulatzailearen artean inferentziatzko erlazioa agertzen denean.

3.2. Corpuseko datu estatistikoak

Ondoko taulan ikus daitekeenez (ikusi 4. taula), EUDIMA corpuseko¹⁹ datu estatistikoaren arabera²⁰, hiru hauek dira erabilera-maiztasun handieneko birformulatzaile esplikatioak: *hau da*, *alegia* eta *hots*, hurrenez hurren. Askoz ere agerpen-maiztasun txikiagoak dituzte *bestela esanda*, *beste era batera esanda* eta horien aldaerek, bai EUDIMA corpusean oro har eta baita zuzenbidearen alorreko testuetan ere. Bestalde, agerpen-datu meta-tuek iradokitzen dutenez, birformulatzaile esplikatioek agerpen-maizta-

¹⁹ EUDIMA corpusa: 62.600.000 testu-hitz / Lege-testuak (LT): 4.100.000 testu-hitz / Zientzia Juridikoaren alorreko testu akademikoak (TA): 2.500.000 testu-hitz.

²⁰ Maiztasunaren datuak 100.000 hitzeko laginei dagozkie.

sun hurbilak dituzte EUDIMA corpusean (%106,65)²¹ eta zuzenbidearen alorreko testuetan (%96,43)²². Alabaina, lege-testuei eta testu akademikoiei dagozkien datuak bereizirik aztertuz gero²³, nabarmen geratzen da agerpen-maiztasunak oso desberdinak direla bi azpicorpusetan: %25,90 lege-testuetan; eta %212,12 testu akademikoetan. Horrek agerian uzten du birformulatzaile esplikatiboek oso agerpen-maiztasun erlatibo txikia dutela lege-testuetan, baina testu akademikoetan, aldiz, birformulatzaile esplikatiboen maiztasuna EUDIMA corpusaren batez bestekoa baino nabarmen handiagoa dela.

²¹ Besterik ezean, 100.000koak adierazteko erabili dugu %o ikurra.

²² Zientzia Juridikoetako testuetan birformulatzaileek duten maiztasun orokorra (guztira, 6365 agerpen)


²³ Bereizketa horri jakingarri deritzogu, zuzenbideko testu-generoen inguruko sailkapenek (Hernández Gil, 1986; Urrutia, 1990; Urrutia eta Lobera, 1997; Borja, 2000; Hernando, 2003; Vilches eta Sarmiento, 2010; Llamas, Martínez eta Taberner, 2012) iradokitzen baitute, diskurtso-ezaugarriak, oro har, eta hizkuntza-baliabideen hautabideak desberdinak izan daitezkeela lege-testuetan (lege orokorrak, arauak, ordenantzak...), auzitegi-tako testuetan (ofizioak, probidentziak, jakinarazpenak...), notariotzako testuetan (testamentuak, eskriturak...), testu akademikoetan (eskuliburuak, artikulu espezializatuak...) eta testu profesionaletan (txosten juridikoak, oroitidazkiak, gutunak...). Lan honetan bi testu-genero ikertu dira: lege-testuak (Espainiako estatuko lege orokorrak eta Nafarroako Foru Erkidegoko eta Euskal Autonomi Erkidegoko legeak) eta testu akademikoak (UPV/EHUko Zuzenbidearen alorreko unibertsitateko eskuliburuak eta ELERIA aldizkariko artikulu akademikoak).

4. taula. Birformulatazaile esplikatioben agerpen-maiztasunak EUDIMA corpusean

	Birformulatazailea	Lege-testuak	Testu akademikoak	EUDIMA
1	alegia	394 (%o9,60)	1842 (%o73,68)	19544 (%o31,22)
2	hots	212 (%o5,17)	922 (%o36,88)	17158 (%o27,40)
3	hau da	422 (%o10,29)	2304 (%o92,16)	25595 (%o40,88)
4	bestela esanda...	14 (%o0,32)	32 (%o1,28)	1032 (%o1,61)
5	beste era batera esanda...	1 (%o0,02)	51 (%o2,04)	462 (%o0,7)
6	beste modu batera esanda...	6 (%o0,13)	24 (%o0,96)	231 (%o0,95)
7	beste hitz batzuetan esanda...	0 (%o0)	9 (%o0,36)	118 (%o0,18)
8	beste hitz batzuetan	0 (%o0)	23 (%o0,96)	96 (%o0,15)
9	beste hitzetan	0 (%o0)	17 (%o0,68)	110 (%o0,16)
10	beste hitzetan esanda	0 (%o0)	5 (%o0,2)	37 (%o0,05)
11	erran nahi baita...	10 (%o0,23)	21 (%o0,84)	1085 (%o1,71)
12	hitz batean/batez (esateko)...	1 (%o0,02)	11 (%o0,4)	1022 (%o1,63)
13	bi hitzetan (esanda)...	0 (%o0)	41 (%o1,64)	146 (%o0,23)
14	gauza bera dena	2 (%o0,04)	1 (%o0,04)	128 (%o0,20)
	GUZTIRA	1062 (%o25,90)	5303 (%o212,12)	66764 (%o106,65)


Ildo beretik, eta alorrez alorreko datu xeheak grafiko batean irudikatuz gero, 1.1. irudian ikusten den banaketa agertzen da.

1.1. Irudia: Birformulataile esplikatiboen banaketa alorrez alor



Ikusten denez, birformulataile esplikatiboek agerpen-maiztasun desberdinak dituzte alorrez alor. Lege-testuetan maiztasun erlatibo txikia dute (testu orokorretan dutenaren antzekoa). Zuzenbideko testu akademikoetan, berriz, birformulataile hauek askoz ere maizago erabiltzen dira, eta joera hori Giza eta Gizarte Zientzietako testuetan atzematen denaren antzekoa da, itxura denez. Erregresioaren datuak ($R^2=0,9103$) berresten du banaketa hori irmoa dela, eta, ondorioz, birformulataile esplikatiboen agerpen-maiztasunak zerkusia izan dezakeela jakintza-arloarekin, eta, zuzenbideko testuen kasuan behintzat, baita testu-generoarekin ere. Izan ere, zuzenbideko testuen banaketa xeheari erreparatuz gero (ikusi 1.2 irudia), argi geratzen da birformulataile esplikatiboek agerpen-maiztasun nabarmen desberdinak dituztela lege-testuetan eta testu akademikoetan; eta erregresio-indizearen balio jasoak ($R^2=0,9404$), bestalde, agerian uzten du, Zientzia Juridikoan alorrean behintzat, testu-generoaren arabera banaketa ere estatistikoki esangarritzat jo daitekeela.

1.2. Irudia: Birformulataile esplikatiboen banaketa Zientzia Juridikoan alorreko testuetan




Izan ere, Mann-Withney probaren bidez egindako alderaketek agerian uzten dutenez, aldeak estatistikoki esangarriak dira (%99ko fidagarritasun-mailan) hiru antolatzaileen kasuan: *alegia*, *hau da* eta *hots*. Alde horiek esangarriak dira bai unibertsitateko testu-liburuen kasuan eta baita ELERIA aldizkariko artikuluko akademikoaren kasuan ere. Haatik, *bestela esanda* antolatzaileak hain du maiztasun txikia lagin guztietan, ezen atzematzen diren aldeak ezin baitira esangarriztat jo.

Dena den, sail honetako birformulatazaileen banaketa ez da bera testu-genero guztietan. Izan ere, maiztasun-datuak Osagai Nagusien Faktore Análisis izeneko probaren bahetik pasatuz gero, agerian geratzen da korrelazio esangarria dagoela *hots* eta *alegia* birformulatazaileen agerpen-maiztasunen artean batetik, eta *hau da* eta *beste hitz batzuetan* antolatzaileen artean, bestetik. Hori horrela, zuzenbidearen alorreko testuetan 1.3 irudian ikusten diren joerak bereizten dira:

- Behealdean ezkerrean lege-testuak biltzen dira. Lege-testuetan lau antolatzaileen maiztasunak txikiak dira, eta, oro har, orekatuak.
- Bigarren multzoan (irudian eskuinerago), berriz, ELERIA aldizkariko artikuluak eta unibertsitateko eskuliburu gutxi batzuk kokatzen dira. Testu horietan ere lau birformulatzailen maiztasunak orekatuak dira, baina, lege-testuetakoak baino handiagoak.
- Hirugarren multzoan, azkenik, lerro etenetik eskuinera sakabanatuak agertzen dira unibertsitateko eskuliburu gehienak. Multzo honetan birformulatzailen esplikatiboen maiztasunak are handiagoak dira, baina, lan batzuetan *hau da* eta *beste hitz batzuetan* dira nagusi (goialdean kokatutako horietan) eta beste batzuetan, berriz, *hots* eta *alegia* erabiltzen dira gehienbat (behean eskuinean kokatutako lanetan).

Unibertsitateko eskuliburuetan atzematen den banaketaren arrazoiak argitzea erraza ez den arren, pentsatzekoa da alde horiek egileen joera estilistikoaren bereizgarri izan daitezkeela. Dena den, hipotesi hori egiaztatzeko lagin gehiago beharko lirateke eta azterketa xeheago bat egin beharko litzateke.

1.3. Irudia: Zuzenbideko testuen banaketa faktoriala



1. ardatza (ezk-esk): *Hau da* / *Beste hitz batzuetan*

2. ardatza (goi.-beh.): *Hots* / *Alegia*

Bestalde, aztertutako birformulatzaile esplikatiboen inguramendu sintaktiko-diskurtsiboari bagagozkio, datu estatistikoek beste alde batzuk ere uzten dituzte agerian. Izan ere, zuzenbidearen alorreko testuetan maiztasun txikiagoz agertzen dira azalpenezko funtzioa duten birformulazio aposatu gabeak, EUDIMA corpusean baino. Hona hemen datu zehatzak:

5. taula. Azalpenezko birformulazio aposatu gabeen ehunekoak²⁴

	EUDIMA oro har	Zuzenbidea_Ak	Zuzenbidea_Lt
Hau da	% 84,70	% 78,36	% 14,67
Alegia	% 69,31	% 58,57	% 7,61
Hots	% 67,00	% 42,95	% 10,38
Bestela esanda	% 65,66	% 82,81	% 9,52
Guztirakoa	% 75,26	% 65,00	% 11,35

Ikusten denez, alde hori nabarmenagoa da lege-testuen kasuan. Izan ere, lege-testuetan birformulazio esplikatibo gehienak aposatuak dira; testu akademikoetan, aldiz, birformulazio esplikatibo gehienak azalpenezkoak dira edota, partzialak izanik ere, geroratuak azaltzen dira. Alegia, lege-testuetan birformulazio esplikatibo gehienak partzialak dira eta, eskuarki, enuntziatuaren sintagma bati dagozkio. Testu akademikoetan, berriz, birformulazio esplikatibo gehienek beregaintasun sintaktiko osoa duten bi enuntziaturen bidez ematen dira, eta birformulazio partzialak ere, geroraturik eskaintzen dira ia beti. Joera hori bateragarria da testu akademikoaren zeregin diskurtsiboarekin; izan ere, testu horien xedea da zuzenbidearen printzipioak eta

²⁴ Datu hauek kalkulatzeko EUDIMA corpusetik erazitako adibide-zerrendak murriztu dira corpus-tresnak horretarako eskaintzen duen murrizketa-baliabidearen laguntzaz (Ikusi <http://www.ehu.es/ehg/eudima/corpusa/>), baina, zerrendak eskuz egiaztatu dira. Bestalde, aposatu gabeko adibideen ehunekoak eragiketa hau eginez kalkulatu da: (markatzaile jakin batez markatutako aposatu gabeko kasuen zenbatekoa / markatzaileak hori daramaten birformulazio esplikatiboen kopuru osoa) x 100.

legeen edukiak ikasleei aurkeztu eta azaltzea. Itxuraz, zeregin horiek hurrenez hurreneko bi diskurtso eragiketaren bitartez bideratzen dira maizenik, eta unitate horiek sintaktikoki beregainak dira ia beti.

Azalpeneko birformulazio-sekuentzia horiek bideratzeko, lan honetan aztertutako lau markatzaileak erabiltzen dira (*hau da*, *alegia*, *hots* eta *bestela esanda*). Hala ere, 5. taulan ikus daitekeenez, *hau da* markatzaileak besteek baino joera nabarmenagoa du azalpeneko birformulazio aposatu gabek bideratzeko. Izan ere, lagin guztietan *hau da* markatzaileak agertzen ditu daturik jasoenak. Joera horren indarra argiago ikusten da 6. taulan. Bertan ikus daiteke zenbat kasutan erabiltzen den partikula bakoitza birformulazio esplikatibo ez aposatuak markatzeko eta zein den, horrenbestez, bakoitzaren erabilera erlatiboa laginez lagin.

6. taula. Azalpeneko birformulazio aposatu gabeei bide egiteko erabilitako markatzaileen ehunekoa²⁵:

	EUDIMA oro har		Zuzenbidea_Ak		Zuzenbidea_Lt	
	Agerpenak	%	Agerpenak	%	Agerpenak	%
Hau da	23288	% 48,03	1887	% 55,26	76	% 58,46
Alegia	13546	% 27,94	1079	% 31,59	30	% 23,07
Hots	11497	% 23,71	396	% 11,59	22	% 16,92
Bestela esanda	153	% 0,32	53	% 1,55	2	% 1,53
Guztira	48484	% 100	3415	% 100	130	% 100

Ikusten denez, lagin guztietan *hau da* markatzailea da, alde handiz, gehien erabiltzen dena azalpeneko birformulazio aposatu gabeei diskurtsoan bide egiteko. Hala ere, *hau da* markatzailea ez da zeregin horretarako erabiltzen den bakarra eta, lehen esan denez, beste funtzio batzuk ere betetzen ditu *hau da* birformulatzaileak.

²⁵ Kalkulu hau egiteko eragiketa hau erabili da: (markatzaile jakin batez markatutako aposatu gabeko azalpenen zenbatekoa / aposatu gabeko azalpenen kopuru osoa) x 100.

Laburbilduz, birformulatzailerik esplikati boen agerpen-maiztasunen azterketa estatistikoak agerian uzten duenez, birformulatzailerik hauek banaketa desberdina dute alorraren arabera eta, zuzenbideko testuen kasuan behintzat, baita testu-generoaren arabera ere. Bestalde, ikuspegi estatistikotik, banaketa horiek irmoak eta sistematikoak dira; alegia, ez dirudi ausazkoak direnik. Asistematikotzat jo daitezkeen aldakortasun-gertakari bakarria da unibertsitateko eskuliburuetan atzematen dena; izan ere, lan batzuetan *hau da* eta *bestela esanda* antolatzaileek maiztasun nabarmen handiagoa dute, eta beste batzuetan, berriz, *hots* eta *alegia* gailentzen dira. Esan bezala, joera horiek estilo-bereizgarritzat jo daitezke, behin-behinean behintzat. Bestalde, egiaztatu dugunez, azalpenezko birformulazio aposatu gabeen kopurua nabarmen txikiagoa da lege-testuetan, bai EUDIMA corpusaren datuekin alderatuta eta baita zuzenbideko testu akademikoetan era horretako birformulazioek duten maiztasuna kontuan hartuta ere. Horrez gain, badirudi birformulazio aposatu gabeak maizago bideratzen direla *hau da* markatzailearekin, gainerako markatzaileekin baino (*alegia*, *hots*, *bestela esanda*). Hala ere, egiaztatu dugunez, funtzio hori ez da *hau da* markatzaileak betetzen duen bakarria eta *hau da* markatzailea, bestalde, ez da funtzio hori betetzen duen bakarria ere.

3.3. Lege-testuak: balio eta erabilera nagusiak

Aurreko atalean ikusi denez, birformulatzailerik esplikati boek maiztasun txikiak dituzte lege-testuetan zuzenbideko testu akademikoan aldean eta baita beste jakintza-alor gehienetako testuen aldean ere. Haatik, agerpen-maiztasun horiek testu orokorretan atzematen direnen paretsuak dira. Izan ere, lege-testuetan birformulatzailerik esplikati boak gehienbat lege-testuen hitzaurreetan eta zioen atalean agertzen dira (20) (21) eta gutxiagotan erabiltzen dira lege-testuaren artikuluetan bertan (22) (33).

- (20) Ezagun dugu, hori bai, *tragedia horren gertuko eta zuzeneko eragina*, **hots: erailketek, mehatxuek, bahiketek, estortsioek eta xantaiek sortutako min eta sufrimendu itzela** [ZCP-Lt, Terrorismoaren biktimen aitortzari buruzko legea, Eusko Legebiltzarra (2010)]

- (21) III. Kapituluak *osasun laguntza* ukitzen du, **alegia, tabako menpekotasuna sendatzeko ekitaldiak** [ZCP-Lt, Tabako kontsumoaren prebentzioari, arnasteko airea babesteari eta tabakoaren aurrean osasuna sustatzeari buruzko Foru Legea, Nafarroako Parlamentua (2003)]
- (22) Preskripzio-epela *beste era hauetan* eteten bada, **hots, administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioari errekurtoa aurkezteagatik, ekintza zibil edo penalak gauzatzegatik, erruduntasun-testigantza jurisdikzio eskudunari igortzegatik** [ZCP-Lt, EAEko Prezio Publikoen Legea, Eusko Legebiltzarra (2007)]
- (23) Oro har, salbuespenezko baimenik izan ezean, debekaturik dago: a) Debekualdiei buruzko xedapen orokorrean ezartzen diren debeku garaietan ehizan aritzea. b) Ehiza-espezieen zulo eta habiak hondatzea, eta kumeak edo arrautzak harrapatzea zirkulazio eta salerosketarako. c) Ehizan aritzea *abantaila-egun deituetan, hau da, sute, epizootia, uholde, lehorde, izotzaldi edo bestelako ezbeharren ondorioz animaliek ohiko defentsak ahuldurik dituztenean edo toki jakinetara jo beharra dutenean* [ZCP-Lt, Nafarroako ehizari eta arrantzari buruzko Foru Legea, Nafarroako Parlamentua (2005)]

Bestalde, lege-testuetan atzemandako ia adibide guztietan birformulatzailer esprikatiboen funtzioa metadiskurtsiboa da; alegia, identifikazio bidez erreferentzia esleitzea (24), erreferentzia zehaztapen bidez esleitzea (25), esanahia edo zentzua azaltzea (26), esanahia definizio bidez argitzea (27) edota izendapen bidez azaltzea (28).

- (24) Legeak, helburu hori betetzeko, *harremanen objektu horri, hau da, pisu edo lokalari*, erantsi egiten dizkio eraikina bera, eta horri dagozkionak eta zerbitzuak [ZCP-Lt, Kode Zibila, Deustuko Unibertsitatea (2007)]
- (25) Bada *salbuespen bat*, **alegia, Euskal Autonomia Erkidegoaren sektore publikoan sartutako erakundeetarako transferentziak egiten direnean edo Aurrekontuetan izen horrekin jasotako diru-laguntzak direnean**; kasu bi horietan ez da baime nik behar izango [ZCP-Lt, Euskal Autonomi Erkidegoko 2008.

eko Aurrekontu Orokorrek onartzen dituen Legea, Eusko Legebiltzarra (2007)]

- (26) Bestalde, 1995eko Zigor Kodeak (2000ko erreformak indartua) bere 577. artikulua berritasuna dakar, terrorismoaren delituei buruzko kapituluaren antolatua ez dagoen biolentzia politikoaren kasuak, doktrinaren «*banakako terrorismoa*» deitutakoak, hartzen baititu, **alegia, honelako kasuak: terroristatzat jotzeko beharrezkoa ez denean banda armatu bateko kidea izatea edo horren barruan izatea, nahikoa delako delituzko ekintza jakin batzuk (giza hilketa, lesioak, suteak eta abar) egitea, konstituzio-ordena iraultze aldera edo bake publikoaren larriki aldatze aldera** [ZCP-Lt, Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egiteko Legea, Eusko Legebiltzarra (2008)]
- (27) Aurrekoak ez bezalako sozietateek egindako eragiketak direnean eta kapitala handitzen ez duten bazkideen ekarpenetan, zerga-oinarria haxe izanen da: ***ekarritako diruaren balio garbia, hau da, ekarritako ondasun eta eskubideen benetako balioa ken kengarriak diren karga eta gastuak eta ekarpen hori egiteagatik sozietateak bere gain hartu dituen zorren balioa*** [ZCP-Lt, Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko Foru Legea, Nafarroako Parlamentua (2008)]
- (28) *Zoladura gaineko marrek, hau da, bide-marrek*, zirkulazioa arautzea dute helburu, eta bide-erabiltzaileei oharrak egin edo berentzat lagungarri izatea [ZCP-Lt, Zirkulazioari buruzko Araudi Orokorra, IVAP/IZO (2003)]

Esan bezala, lege-testuetan bakanak dira azalpenezko birformulazioen adibideak (29) (30) (31)

- (29) *Masaren aurkako kredituak aurretik kentzeko modukoak dira, hots, konkurtso-kredituak ordaindu baino lehen, masa aktibotik kendu behar dira pribilegio berezidun kredituei lotuta ez dauden ondasun eta eskubideak* [ZCP-Lt, Konkurtso Legegria, Deustuko Unibertsitatea (2006)]
- (30) *Horretarako, Lehiaren Batzorde Nazionalak kasuan kasuko autonomia-erkidegoko organo autonomikora gertakariaren berri ematen*

duen pleguaren kopia igorriko du, eta halakorik izanez gero, baita salaketaren, bestelako dokumentuen eta egindako proben kopiak ere, **hau da, espedientean jasotako agirien berri emango dio organo autonomikoari, eta pleguan interesatu gisa ageri direnei horren berri jakinaraziko zaie** [ZCP-Lt, Lehia Defendatzeko Legea, IVAP/IZO (2007)].

- (31) *Epaitegi berri horien izentazioak euren eskumeneko gaien izaera nagusia aipatzen du, baina ez du erabateko identifikaziorik egin nahi, merkataritzako jakintzagai edo legeriarekin. **Bestela esanik, hasierako momentu honetan merkataritzako epaitegiei ez zaizkie eratziki merkataritzako gai guztiak, eta, gisa bertsuan, epaitegien eskumeneko gai oro ez dira merkataritzakoak** [ZCP-Lt, Konkurtso Legeria, IVAP/HAEEko Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala eta Deustuko Unibertsitatea (2006)]*

Bakanagoak dira, azkenik, itxuraz funtzio argumentatiboa duten eta inferentziakotzat jo daitezkeen birformulazioak (32) (33)

- (32) *Aldeek konpromisoa hartu dute ezabatzeko, oraindik egin ez badute, eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntza bat erabiltzeko egon daitezkeen bereizketa, bazterkeria, murriztapen edo lehentasun justifikatu gabe oro, **alegia, hizkuntza hori ahultzea edo hori mantendu edo garatzea arriskuan jartzea eragin dezaketenak** [ZCP-Lt, Hizkuntza-Zuzenbidea: Testu-bilduma euskaraz, Euskaltzaindia (2007)]*
- (33) *Arean ere, tratamendu hori esangura zabalean ulertu behar da, eta ez esangura murrizgarrian. **Bestela esanda, ulertu behar da irakaskuntza-askatasuna dela hezkuntza-esparruan dauden askatasun eta eskubideen multzoa** [ZCP-Lt, Zuzenbide Politikoren legeria. Deustuko Unibertsitatea (2007)]*

Aztertutako corpusetik bildutako adibideek erakusten dutenez, funtzio horiek guztiak betetzen dituzte hiru birformulatzailerik esplikatibo nagusiek (*hau da, alegia eta hots*); *hau da*, ez dirudi inolako espezializazio funtzionala dutenik. Alabaina, geroratu orde, birformulazioa perpausean aposizio gisa txertatzen denean (sintagma baten birformulazio gisa eskuarki), *hots* markatzailea besteak baino maizago erabiltzen da (34) (35).

- (34) *Euskal Herrian ditugun unibertsitate handi bi, **hots, Deustuko Unibertsitatea eta Euskal Herriko Unibertsitatea**, honelako lan bat egiteko elkarrekin harremanetan jarri genituen [ZCP-Lt, Zigor Kodea, Deustuko Unibertsitatea (2004)]*
- (35) *Eta testu berriak aurrekoak baino artikuluko gutxiago baditu ere, ahaleginak egin dira *artikulu garrantzitsuenei, **hots, epai zein ebazpenetan gehien aipatzen direnei***, aurreko zenbaki bera emateko [ZCP-Lt, Hipoteka Legeria, Deustuko Unibertsitatea (2004)]*

Bestalde, lehenago ere esan denez, azalpenezko birformulazio aposatu gabeen kasuan maizago erabiltzen da *hau da* markatzailea beste hirurak baino (30). *Bestela esanda* eta horren kideek ere funtzio metadiskurtsiboak zein funtzio argumentatiboak betetzen dituzte lege-testuetan atzemandako adibideetan. Alabaina, adibide horiek oso bakanak dira eta, ondorioz, ezin dira erabakigarritzat hartu.

Laburbilduz, nahiz eta birformulatzaile esplikatiboek lege-testuetan agerpen-maiztasun txikiagoak dituzten beste alor batzuetako testuetan zein alor bereko zuzenbideko testu akademikoetan baino, birformulatzaileek kategoria honi, oro har, egozten zaizkion funtzio nagusi guztiak betetzen dituzte lege-diskurtsioan. Nolanahi ere, ez dirudi *hau da, hots* eta *alegia* markatzaileek inolako espezializaziorik dutenik, hirurak erabiltzen baitira lege-testuetan orotariko birformulazio esplikatiboak bideratzeko (erreferentziak, azalpenezkoak, definizio bidezkoak...). Bestalde, lege-testuetan atzemandako ia adibide guztietan birformulatzaile esplikatiboek funtzioa metadiskurtsiboa da (alegia, erreferentzia esleitzea, esanahia argitzea, definitzea, izendapena); bakana da azalpenezko funtzioa birformulakizuna perpausa denean, eta are bakanagoa funtzio argumentatibo edo inferentziakoa. Hala ere, badirudi atal birformulatzailea perpausuan tarteki gisa txertatzen denean *hots* maizago erabiltzen dela beste markatzaileak baino, eta azalpenezko birformulazio aposatu gabeen kasuan maizago erabiltzen dela *hau da* beste markatzaileak baino. Betiere, EUDIMA corpusean bildutako lege-testuetan atzemandako joerak dira horiek.

3.4. Testu akademikoak: balio eta erabilera nagusiak

Aurreko atalean ikusienez, birformulatzailerik esplikatiiboek maiztasun nabarmen handiagoak dituzte zuzenbideko testu akademikoetan lege-testuetan baino. Izan ere, 3.2. ataleko 1.1. irudian ikus daitekeenez, zuzenbideko testu akademikoetan birformulatzailerik agerpen-maiztasuna oso handia da. Alegia, Zientziaren eta Teknologiaren alorreko corpus jakin batzuk kenduta, zuzenbideko testu akademikoak dira balio birformulatzailerik esplikatiiboek agerpen-maiztasun handienak dituztenak, betiere, EUDIMA corpusen bildutako testuei gagozkiela. Bestalde, testu akademikoek eta lege-testuen arteko maiztasun-datuak aldeak estatistikoki esangarriak dira (% 99tik gorako fidagarritasun-tartean) *alegia*, *hau da* eta *hots* markatzaileen kasuan. Ikuspegi horretatik, beraz, hiru birformulatzailerik esplikatiibo horiek zuzenbideko testu akademikoek adierazletzat jo daitezke zalantzarako tarte handirik gabe.

Zuzenbideko testu akademikoetan markatzaile hauek dituzten eginkizunei bagagozkie, bestalde, datu estatistikoek erakusten dutenez (ikus 5. taula), birformulazio esplikatiiboek % 65 inguru azalpenekoak dira eta birformulakizunaren ondoren txertatzen dira berbaldian, aposatu gabeko enuntziatu baten bitartez, eskuarki, puntu batez edota puntu eta komaren bidez bereizirik. Lege-testuetan, berriz, askoz bakanagoak dira mota horretako kasuak (% 11,35 inguru). Alegia, lege-testuetan birformulazio esplikatiibo gehienak erreferentzia esleitzekoak, definiziozkoak edota izendapenezkoak dira; testu akademikoetan, aldiz, azalpeneko birformulazio aposatu gabeak. Joera hori ere testu akademikoek adierazletzat jo daiteke. Izan ere, birformulazioek zuzenbideko testu akademikoetan dituzten testuinguruei erreparatuta, erraz antzematen da eragiketa horiek zerikusi zuzena dutela gehienetan zuzenbidearen irakaskuntzari berariaz atxikitako funtzio diskurtsiboekin.

Horrela, bada, identifikazio-balioa duten erreferentziako birformulazio esplikatiiboek, esaterako, legeek, teoriak edota adituek diotenaren erreferentziak emateko erabiltzen dira eskuarki (36), (37), (38). Horrelako kasuetan, atal birformulatzailerik *-(e)la* menderagailua duen perpaus konpletiboa izan ohi da (36); baina, batzuetan, aipamena ez da zehar-estiloan ematen (38).

- (36) Aspalditik kriminologia teoriko zein praktikoak *honako azalpen hau* ezarri zuen gazte delitugileei buruz: **alegia, gehienek (ez guztiek) gizartean aritzeko baliabide kognitiboen eskasia eta atzerapen nabarmenak dituztela** [ZCP-Ak, Adingabeen zuzenbide penala, Jon-Mirena Landa (Koord.) UPV/EHU (2011)]
- (37) Horiez gain, *zera* galdatzen zaio, **alegia, eragiketean parte hartu eta independente izaten jarraitzen duten enpresen lehiatzeko jarreran inolako koordinaziorik ez gertatzea** [ZCP-Ak, Lehia babesten duen Zuzenbidea. Join Venture. I. Altzelai, ELERIA (2002)]
- (38) Dena den, une honetan, *erdiko gunea delakoari buruz esandakoa* ekarri behar dugu gogora; ***hau da, prozesu zibilaren kasuan, batzuetan, interes publikoa nagusituko da eta berarekin batera beharrian-printzipioa -ezgaitasun kasuetan, esaterako-, eta prozesu penal batzuetan, aukera-printzipioa izango dugu oinarri -kalumnia-kasuetan, adibidez-*** [ZCP-Ak, Zuzenbide Prozesalerako sarrera, A. Saiz, UPV/EHU (2006)]

Horrez gain, legeek diotena zehazki jasotzeko ere erabiltzen dira (39) (40) eta baita lege-erreferentziak zehaztasun handiagoz emateko ere (41). Erreferentzia horiek gehienetan euskaraz emanak datoz (39) (41); baina zenbait kasutan gaztelaniaz ematen dira (40).

- (39) Foru Legeak *artikulu bakar bat* eskaintzen dio eremu ez-euskaldunari; ***hots, «Aitortu egiten da herritarrek Nafarroako Administrazio Publikoetara euskaraz zuzentzeko eskubidea dutela. Azken hauek interesatuei gaztelaniazko itzulpena eska diezaiokete, edo 9. artikuluan aurreikusitako itzulpen zerbitzuak»*** [ZCP-Ak, Euskararen egoera juridikoa Nafarroan, J. L. Mendoza, ELERIA (2002)]
- (40) Era berean, lerro hauetan 1985eko *Uraren Legeak 1.2 atalean zehazki azpimarratzen duena* hitzez hitz gogoratzea komeni da, ***hots, «las aguas continentales superficiales, así como las subterráneas renovables, integradas todas ellas en el ciclo hidrológico, constituyen un recurso unitario, subordinado al interés general, que...»*** [ZCP-Ak, Emari ekologikoa, X. Ezeizabarrena. ELERIA, (2001)]

- (41) Hezkuntzako Ikuskatzaileen Kidegoa, esate baterako, *azaroaren 20ko 9/1995 Lege Organikoan* sortu zen, **Ikastetxeen Parte-Hartzeari, Ebaluazioari eta Gobernuari buruzkoan alegia**, eta beste hirurak, berriz, Hezkuntzaren Kalitateari buruzko abenduaren 23ko 10/2002 Lege Organikoaren xedapen bidez sortu ziren [ZCP-Ak, Hezkuntza Unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako zenbait kideko osatzeko legea, X. Ezeizabarrena. ELERIA, (2008)]

Zehaztapen-funtzioa duten erreferentzia esleitzeko birformulazio esplikatioak, bestalde, berbaldira ekarri nahi den gai, informazio edota datu berriren bati bidea egiteko estrategia gisa erabiltzen dira; alegia, estrategia honen bidez irakurlearen (ikaslearen) arreta bideratzen da atal birformulazioetan jasotako informaziora (42) (43). Zenbaitetan enumerazioei bide egiteko erabiltzen da (44).

- (42) Hona hemen adingabeen zuzenbide penalak eduki beharko lukeen *berezitasunetatik bat*: **zuzenbide penala hezitzailea izatea, alegia** [ZCP-Ak, Adingabeen zuzenbide penala. Jon-Mirena Landa (Koord.) UPV/EHU (2011)]
- (43) *Lehenengo kasuan -hau da, zilegi ez den kausa bat duen kontratuari dagokionez-*, kontratua deuseza litzateke. [...] *Bigarrenean -hau da, zor gabe interesak ordaintzen direnean-*, errakuntzak ez du garrantzirik [ZCP-Ak, Zuzenbide zibila III. Betebeharren zuzenbidea, erantzukizun zibila eta kontratuen teoria orokorra, Ibon Viteri, UPV/EHU (2011)]
- (44) Hala kontzeptu nagusien -bai orokor eta komun, bai berezien- arloa itxita, *beste hiru irakasgai geratuko dira*, legearen zehaztasunetan gehiago sakontzeko: **alegia, delitua (laugarren ikasgaia), horren aurrean emandako erantzuna (bosgarren irakasgaia) eta biktima (seigarren ikasgaia) jorra ditzagun** [ZCP-Ak, Adingabeen zuzenbide penala. Jon-Mirena Landa (Koord.), UPV/EHU (2011)]

Adibide-sorta honek erakusten duenez (36-44 adibideek, alegia), erreferentziako birformulazio esplikatioetan diskurtso-markatzaileek zeregin garrantzitsua dute bai lege-teorien eta bai lege-testuen erreferentziak ber-

baldian txertatzeko; eta, aldi berean, berbaldia osatzen duten elementuak modu egokian bereizi, antolatu eta kohesionatzeko. Alegia, testuinguru horietan birformulazio-markatzaile esplikatiboek funtzio metadiskurtsiboa dute (kanpoko erreferentziak berbaldian txertatzea) baina baita funtzio testuala ere (informazioa egituratzea eta kohesioa indartzea).

Definiziozko birformulazioak, bestalde, maiz samar erabiltzen dira zuzenbideko testu akademikoetan kontzeptu juridikoen adiera zehatza emateko (45) (46), kontzeptu juridikoen adiera modu samurrean emateko (47) (48) eta latinez emandako kontzeptuen esanahia argitzeko (49) (50). Definizioa emateko edota adiera argitzeko, askotariko egitura sintaktikoak erabiltzen dira.

- (45) Testamentuak, printzipioz, *notariala* izan behar du, **agiri publiko baten jaso, alegia** [ZCP-Ak, Familia Zuzenbidea. Leire Imaz, UPV/EHU (2009)]
- (46) Kideek *boto partikularra (hots, gehiengoaren iritziarekin bat ez datorrena)* idatziz aurkez dezakete. Idatzia aurkezteko berrogeita zortzi ordu izango dituzte, eta aktari erantsiko zaio [ZCP-Ak, Administrazio-zuzenbidea-atal-bereziak. I. Urrutia, UPV/EHU (2008)]
- (47) Ezegitea, aldiz, *itxarotekoa zen hura ez egitea da, alegia, Zuzenbidearen ikuspegitik egin behar zuena ez egitea* [ZCP-Ak, Adingabeen zuzenbide penala, Jon-Mirena Landa (Koord.) UPV/EHU (2011)]
- (48) Kontratua bada izan, pertsona bat edo gehiago ados daudenetik, beste pertsona bati edo batzuei begira, beren burua gauzaren bat ematera edo zerbitzuren bat egitera behartzeko (KZren 1254. art.). Kontratuaren alderdiek *efektu juridikoa, hau da, betebeharrak sortzera zuzendua dagoen adostasuna ematen dute (haien borondate komuna adierazten dute)* [ZCP-Ak, Zuzenbide zibila III. Betebeharren zuzenbidea, erantzukizun zibila eta kontratuen teoria orokorra. Ibon Viteri, UPV/EHU (2011)+
- (49) Eskubide errealak *erga omnes efikazia du, hots, edozeinen aurrean aurkatu liteke* [ZCP-Ak, Eskubide Errealak, Leire Imaz, UPV/EHU (2009)]

- (50) Onartu egin eta gero, *cretioaren bidez*, **hots, esanbidezko adierazpen solemnearen bidez** [ZCP-Ak, Zuzenbide erromatarreko praktikak, J. Arieta-Araunabeña eta B. Ganboa, UPV/EHU (2008)]

Definizio bati zer kontzeptu juridiko dagokion adierazteko (51), edo termino juridikoen aldaerak aipatzeko (52) edo beste hizkuntzetan emandako kontzeptuen euskarazko baliokideak emateko (53), berriz, izendapenezko birformulazioak erabiltzen dira. Izendapenezko birformulazioak maiz samar erabiltzen dira, halaber, kontzeptu baten azpikategorizazioei berbaldian bide egiteko ere (54).

- (51) Gizatasun-printzipioak, berez, ondoreak dakartza *askatasuna kentzen duten zigorren inguruan* (**zigor askatasun-gabetzailetan alegia**), batez ere aipatutako zigorrak betearazi behar diren fasean [ZCP-Ak, **Adingabeen zuzenbide penala**, Jon-Mirena Landa (Koord.) UPV/EHU (2011)]
- (52) Bi hitzetan, Konstituzioak araugintzarako lankidetza-printzipioa ezarri nahi du *legegilearen eta administrazioaren artean* (**Legearen eta Erregelamenduaren artean, alegia**), eta legeari dagokiola neurri hori izango den agertzea [ZCP-Ak, **Administrazio Zuzenbidea: atal bereziak**, Iñigo Urrutia, UPV/EHU (2008)]
- (53) Egun normalean biek zuzenbidea ikasten dute, *baina bachellor titulua lortu ondoren abokatu bihurtzeko egin beharreko azterketak edo degree-ak*, **graduondoak alegia**, desberdinak dira batzuentzat eta besteentzat [ZCP-Ak, **Epailtzara nola sartu Ingalaterran eta Galesen**, I. Ordeñana, ELERIA (2002)]
- (54) Institutzioak edo erakunde publikoak. Erakunde publikoak sortzetikoak dira. Erakunde-administrazioa da deszentralizazio funtzionalaren adibidea. Kasu horretan, *lurraldedun administrazioak* (**hots, Estatuko administrazioak, Autonomia Erkidegoko administrazioak edo Toki-administrazioak**) erakunde bat sortzen du, hari dagozkion zereginetatik batzuk (funtzio batzuk) erakunde berriak bete ditzan [ZCP-Ak, **Administrazio zuzenbidea eta ekonomian esku-hartzeko teknikak**, Iñigo Urrutia, UPV/EHU (2010)]

Azalpenezko birformulazio esplikatiboak ere maiz erabiltzen dira konzeptu juridikoen esanahia argitzeko. Zeregin honetarako azalpenezko birformulazio aposatu gabeak erabiltzen dira gehienbat (55) (56).

- (55) Eta agian, garrantzitsuena, gazteen *delitugintza «normala»* dugu, zentzu deskriptiboan -ez balioesteko asmoarekin- ulertu behar duguna. **Alegia, gazte gehienek bere gaztaroan delituren bat egiten dute baina, bakarrik salbuespenez bihurtzen da delituak egitea ohiko jarduera (ez da «karrera kriminala» sendotzen) eta, denbora pasa ahala, delitu egiteari utzi egiten dio gazte izandako helduak** [ZCP-Ak, Adingabeen zuzenbide penala. Jon-Mirena Landa (Koord.) UPV/EHU (2011)]
- (56) Horrekin esan nahi dugu egoera batean arau bi edo gehiago batera gertatzea. Horretarako *hierarkia printzipioa kontuan hartu beharreko erregela bihurtzen da, baina Lan Zuzenbidean ez da erregela bakarra. Beste era batera esateko, hierarkia batez ere subordinazioa eskatzen duten arauen arteko harremanetan aplikagarria izaten da eta hori ez da beti gertatzen lan arauekin* [ZCP-Ak, Lan Zuzenbidearen iturriak, K. Gorostiaga. ELERIA (2000)]

Era berean, azalpenezko birformulazio aposatu gabeak erabiltzen dira, halaber, lege edota printzipio juridikoen interpretazioei (57) (58) edota inplikazioei (59) (60) bide egiteko ere.

- (57) *Legeak zenbait baldintza zehaztu ditu eskumena bereganatzeko aukerari ekin dakion, eta hori horrela izanik, eskumena bereganatzen denean, arrazoitu beharko da (14.2). Hots, goiko organoak agertu beharko du zergatik bereganatzen duen bere menpekoaren eskumena* [ZCP-Ak, Administrazio-zuzenbidea-atal-bereziak, I. Urrutia, UPV/EHU (2008)]
- (58) Kasu honetan, Estatuko epai sistemaren erpinean dagoen auzitegira joatea eskubide bat da herritarrentzat: *Auzitegi Gorenak ezin du aukeratu zein kasu ezagutu nahi duen eta zein ez; beste hitz batzuetan, derrigorrezko eskuduntza dauka (mandatory jurisdiction), legeak helegitea aurreikusten duen guztietan auzitegiak helegite hori ezagutu behar duelarik* [ZCP-Ak,

Amerikar Estatu Batuetako auzitegi antolaketa: Lerro nagusiak (1), I. Ordeñana. ELERIA, (2003)]

- (59) Batzuen ustez, derrigorrezkotasuna ohituratik eratorriko da, KZren 1089. artikulua lege esapidean barneratzen dena (Alguer, Pérez González). *Beste batzuek, berriz, onartzen dute berez ez duela betebeharrak sortzeko gaitasunik; baina, aldi berean defendatzen dute, promesak hirugarrenei itxaropenak sortzen badizkie, promesa egin duenak ezingo duela edonola ezeztatu. **Hau da, haien ustez, itxaropen bat sortu duena derrigortuta dago*** [ZCP-Ak, Zuzenbide zibila III: Betebarren zuzenbidea, erantzukizun zibila eta kontratuen teoria orokorra, Ibon Viteri, UPV/EHU (2011)]
- (60) *Bestalde, akusatzaileak akusazioaren oinarria aurkeztu behar zuen; **hots, frogak aurkeztu behar zituen.*** [ZCP-Ak, Zigor Prozesu Adierazlea, K. Etxebarria, I. Ordeñana eta J. Perez, UPV/EHU (2007)]

Laburbilduz, zuzenbideko testu akademikoetan ugariak eta esangarriak dira birformulazio-markatzaile esplikatiboen agerpenak eta erabilerak. Batetik, oso maiztasun handia dute, EUDIMA corpusean jasotako testuetan behintzat. Bestetik, berariazko zereginak dituzte ideia eta kontzeptu esangarriak berbaldira ekartzeko; teorien eta legeen erreferentziak diskurtsoan txertatzeko; kontzeptu eta terminoen aldaerak eta hizkuntza desberdinetako ordainak emateko; zuzenbidearen printzipioen eta kontzeptuen esanahiak argitzeko; eta printzipio zein kontzeptu juridiko horien inplikazioak azaltzeko. Eragiketa horiek burutzeko erreferentziatzko, definiziozko, izendapenezko eta azalpenezko birformulazioak erabiltzen dira. Alabaina, aztertutako testu akademikoetan maizago agertzen dira kontzeptuak eta printzipioak argitzeko eta haien inplikazioak azaltzeko pasarteak, bestelakoak baino (definiziozkoak, ordainak ematekoak...). Ondorioz, birformulazio-markatzaile esplikatiboak maizago erabiltzen dira aposatu gabeko azalpenei bide egiteko zereginen, beste eginkizun batzuetan baino. Horrek argituko luke lege-testuen eta testu akademikoen artean atzemandako alde estatistikoen arrazoia. Dena den, erabilera metadiskurtsibo hau lagungarria da, bide batez, testuaren harian informazioa bereizi, antolatu eta josteko ere. Alegia, markatzaile hauek oso lagungarriak dira, halaber, testuaren kohe-

sioa eta konexioa bermatzeko ere. Alde horretatik, baliagarriak izan daitezke testu akademikoek duten helburu komunikatiboa erdiesten laguntzeko, hau da, irakurleentzat (ikasleentzat, alegia) ezezagunak edota ulergaitzak izan daitezkeen ideiak edota kontzeptuak ulergarriagoak egiten laguntzeko. Alde horretatik ere logikoa dirudi zuzenbideko testu akademikoetan (zientzia eta teknologiko zabalkunde testuetan bezala) diskurtso markatzaile hauek gehiagotan erabiltzeak, lege-testuetan edota zabalkunde-asmoa ez duten bestelako testuetan baino.

4. Ondorioak

Lan honetan aurkeztu ditugun datuek zein adibideek erakusten dutenez, birformulatzailerik esplikati boen agerpen-maiztasunek eta erabilerek lotura estua dute diskurtsoaren nolakotasunarekin. Izan ere, erabilitako datu estatistikoek adierazten dutenez, birformulatzailerik esplikati boen agerpen-maiztasunek korrelazio esangarria dute bai eremu diskurtsiboarekin eta baita –ar lo juridikoko testuen kasuan behintzat– testu-generoekin ere. Alegia, eremu diskurtsiboaren arabera eta testu-generoaren nolakotasunaren arabera, pisu erlatibo desberdina izango dute azalpenezko eragiketa diskurtsiboek eta, ondorioz, desberdina izango da, noski, sail honetako markatzaileen agerpen-maiztasuna ere.

Eremu diskurtsiboaren eta testu-generoaren araberrako joera bereizgarri horiek oso agerikoak dira, hain zuzen ere, ar lo juridikoko testuetan. Izan ere, azterlanaren hasieran aurkeztu diren datuen araberr (ikus 3.2. atala), alor honetako lege-testuek euskarazko testu orokorren antzeko ezaugarriak dituzte (birformulatzailerik esplikati boen agerpen-maiztasun erlatibo ertain-txikia eta orekatua, eta nagusiki, erabilerr metadiskurtsiboa); zuzenbideko testu akademikoek, berriz, Giza eta Gizarte Zientzien eta Zientzia eta Teknologiarren alorretako testuen antzeko ezaugarriak dituzte (birformulatzailerik esplikati boen agerpen-maiztasun erlatibo handia eta, aldean, azalpenezko erabilerr nabarmen ugariagoa). Alegia, lege-testuetan birformulazio partzialak dira ugarienak eta testu akademikoetan, berriz, eraberrateko birformulazioek dute pisurik handiena.

Bestelako eremu diskurtsiboetan bezalaxe, testu juridikoetan lau markatzaile erabiltzen dira nagusiki birformulazio esplikatiboei bide egiteko: *alegia*, *hau da*, *hots* eta *bestela esanda*. Lauren pisu erlatiboa antzekoa da lege-testuetan eta zuzenbideko testu akademikoetan. Hala ere, azterlan honetan egiaztatu dugunez, lege-testuetan birformulazio esplikatibo gehienak aposizio moduan agertzen dira (sintagma soil baten birformulazio gisa eskuarki) eta horien artean ugariak dira birformulakizunaren enuntziatuan tarteki gisa txertaturik ematen direnak. Bada, EUDIMA corpuseko adibidetegian ikusi dugunez, inguramendu horretan lau markatzaileak ageri badaitezke ere (*alegia*, *hau da*, *hots* zein *bestela esanda*), lege-testuen kasuan *hots* erabiltzeko joera egiaztatzen da. Testu akademikoetan, berriz, nabarmen ugariagoak dira azalpeneko birformulazio esplikatibo aposatu gabeak, eta, corpuseko datuen arabera, inguramendu horretan maizago erabiltzen da *hau da* beste hiru markatzaileak baino. Ondorioz, *hots* birformulatzailerak pisu erlatibo handixeagoa du lege-testuetan, eta *hau da* markatzaileak, berriz, agerpen nabarmenagoa testu akademikoetan; betiere, testu horiek dituzten be-reizgarri diskurtsiboen adierazle gisa.

Zeregin diskurtsibo zehatzei bagagozkie, bestalde, egiaztatu dugunez, birformulatzailerak esplikatiboei markatzaileen kategoria honi oro har egotzen zaizkion funtzio nagusi guztiak betetzen dituzte lege-diskurtsoan: erreferentziakoak, definiziozkoak, izendapenezkoak eta azalpenekoak (*hots*, ez dirudi *hau da*, *hots* eta *alegia* markatzaileek inolako espezializaziorik dutenik). Hala ere, batetik, azalpeneko birformulazio aposatu gabeen adibide gutxi topatu ditugu lege-testuetan; bestetik, sail honetako markatzaileak lege-testuen aurkezpen eta zioen ataletan agertzen dira nagusiki. *Hau da*, lege-testuetan markatzaile hauek funtzio metadiskurtsiboa dute nagusiki eta gutxitan agertzen dira lege-testuen artikuluetan, ez bada kontzeptu baten bi izendapen edo termino erlazionatzeko edo formulazio sintaktikoa soildu eta ulergarriagoa egiten laguntzeko (adibidez, lege-izen konplexuak berbaldian txertatzeko orduan; gaztelaniazko bertsiotan eskuinera hedatzen diren erlatibozko esaldien kateak euskaraz emateko orduan; eta abar.). Testu akademikoetan, aldiz, askotariko zereginak esleitzen zaizkie markatzaile hauei, betiere, testu hauek duten azalpeneko funtzioari hertsiki atxikiak; *alegia*, zuzenbidearen alorreko kontzeptu, ideia eta teoriak azaltzeko edota argitzeko helburua duten pasarteetan.

Hori horrela, corpuseko adibideek erakusten dutenez, esan liteke markatzaile hauen erabilera zentzu betean dela estrategikoa testu akademikoetan, hain zuzen ere, ez dirudielako erabilera hori, besterik gabe, ausazkoa edota berbal-diaren haria kudeatzera datorrenik. Aitzitik, markatzaile hauek berariazko asmo kognitibo-diskurtsiboa duten estrategiei atxikita agertzen dira eta estrategia horiek (kontzeptu eta ideia juridikoak azaltzea; kontzeptuak argitzea; definizioak ematea; termino juridikoen aldaera samurrak eskaintzea; legeen edota kontzeptu juridikoen inplikazioak agertzea; eta abar) irakaskuntza-asmoari lotuta datoz, zalantzarik gabe.

Horrenbestez, esan liteke azterlan honetan agertutako datuek berretsi egiten dituztela sorburuko hipotesiak. Alegia, agerian uzten dituzte birformulatzailerik esplikatiboez arlo juridikoko testu mota desberdinetan (lege-testuak/testu akademikoak) dituzten banaketak eta erabilerak. Baina, areago, egiaztatzen dute aztertutako diskurtso-markatzaileek berez dutela funtzio komunikatibo estrategikoa; hau da, hartzaileari diskurtsotik inferentziak ateratzen laguntzeko gida edo jarraibide moduko batzuk eskaintzeko funtzio diskurtsibo berezkoa dutela, eta funtzio hori hertsiki lotuta datorrela testu-generoaren nolakotasunarekin eta zeregin komunikatiboarekin. Beraz, aurkeztu ditugun datu estatistikoak zein adibideen analisi kualitatiboak ikuspegi horretatik hartu behar dira; alegia, testuen inguramendu diskurtsiboari atxikita aztertu eta interpretatu behar dira; izan ere, lan honen euskarri teorikoak azaldu direnean agertuenez, inguramendu diskurtsibo horretan aztertzeak dira markatzaile diskurtsiboak berak hizkuntza-kategoria gisa ere.

Aipaturiko bibliografia

ALBERDI, X., 2011a, «Diskurtso-markatzaile berri bat: *hurrenez hurren* birformulatzailerik», *ASJU*, XLV-1, 301-325.

———, 2011b (prentsan), «*Erran nahi baita* birformulatzailerik esplikatiboa gaurko prosan», *ASJU*, XLV-2.

ASCHENBERG, H.; LOUREDA, Ó. (eds.), 2011a, *Marcadores del discurso: de la descripción a la definición*. Frankfurt am Main Iberoamericana-Vervuert.

———, 2011b, «Introducción. Marcadores del discurso: descripción, definición, contraste», Aschenberg, Heidi/Loureda, Óscar (eds.): *Marcadores del discurso: de la descripción a la definición*. Frankfurt am Main: Iberoamericana-Vervuert, 9-31.

BACH, C., 2001, *Els Connectors Reformulatius Catalanas: Anàlisi i Proposta d'Aplicació Lexicogràfica*, IULA/Pompeu Fabra, Barcelona, internet: <http://www.tdx.cat/handle/10803/7487>

BLAKEMORE, D., 1997, «Non-truth condional meaning», *Linguistische Berichte* 8, 92-102.

———, 2002, *Relevance and Linguistic Meaning: The Semantics and Pragmatics of Discourse Markers*. Cambridge: Cambridge University Press.

BORJA, A., (2000), *El Texto Jurídico en Inglés y su Traducción al Español*. Barcelona: Ariel.

CUENCA, M.J., 2012, «La gramaticalización», Iraide Ibarretxe-Antuñano, Javier Valenzuela (Dir.): *Lingüística cognitiva*, Barcelona: Anthropos, 281-304.

ESNAL, P., 2002a., «Testu-antolatzaileak», *Hizpide*, 50, 25-36.

———, 2002b, «Testu-antolatzaileak. Erabilera estrategikoa», *Hizpide*, 51, 19-33.

EUSKALTZAINDIA, 1990, *Euskal Gramatika Lehen Urratsak-III (lokailuak)*. Bilbo: Euskaltzaindia.

———, 1999, *Euskal Gramatika Lehen Urratsak-V (Mendeko perpausak-1)*. Bilbo: Euskaltzaindia.

———, 2008, *Testu-antolatzaileak. Erabilera estrategikoa*. Bilbo: Euskaltzaindia, Jagon Saila.

FUENTES, C., 2009, *Diccionario de conectores y operadores del español*. Madrid: Arco Libros.

GARCÉS, M.P., 2008, *La organización del discurso: marcadores de ordenación y de reformulación*. Madrid: Lingüística Iberoamericana.

———, 2009, *La reformulación del discurso en español en comparación con otras lenguas (catalán, francés, italiano, inglés, alemán e islandés)*. Madrid: Universidad Carlos III de Madrid. Boletín Oficial del Estado.

GÜLICH, E.; KOTSCHI, T., 1983, «Les marqueurs de la reformulation paraphrastique», *Cahiers de Linguistique Française* 5; 305-351.

———, 1987, «Les actes de reformulation paraphrastique dans la consultation La dame de Caluire». *L'Analyse des Interactions Verbales*. Ed. P. Bange. Berna: Peter Lang. 15-81.

———, 1995, «Discourse Production in Oral Communication. A Study Based on French», Quasthoff. U. (ed.): *Aspects of Oral Communication*. Berlín: De Gruyter, 30-66.

HERNÁNDEZ GIL, A., 1986, *Saber Jurídico y Lenguaje*. Madrid: Espasa-Calpe.

HERNANDO, L.A., 2003, *El Lenguaje Jurídico*. Madrid: Verbum.

LARRINGAN, L.M., 1996, *Testu-antolatzaileak bi testu motatan: testu informatiboa eta argudiapenezkoa*. Doktorego-tesia, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea.

———, 2007, «Testu-motak eta testu-antolatzaileak: zer lotura?», Plazaola, Itziar/Alonso-Fourcade M^a Pilar (eds.): *Testuak, diskurtsoak eta generoak. Euskal testuen azterketa korrontea*. Donostia: Erein, 119-134.

LLAMAS, C., MARTÍNEZ, C., eta TABERNEIRO, C., 2012, *La Comunicación Académica y Profesional. Usos, Técnicas y Estilo*. Zizur Txikia: Aranzadi-Thomson Reuters, Colección Despachos.

LOUREDA, Ó., ACÍN, E., (koord.) 2010, *Los estudios sobre marcadores del discurso en español, hoy*. Madrid: Arco/ Libros.

MARTÍ SÁNCHEZ, M., 2008, *Los marcadores en español L/E: conectores discursivos y operadores pragmáticos*. Madrid: Arco/Libros.

MARTÍ SANCHEZ, M., 2011, «Los conectores discursivos (entre los otros marcadores discursivos y los otros conectores)», *Linred, Lingüística en la red*, IX, 05-11-2011, 1-37, (<http://www.linred.es/numero9.html>), Universidad de A Coruña, http://www.linred.es/numero9_articulo_8.html

MARTÍN ZORRAQUINO, M^a A.; PORTOLÉS, J., 1999, «Los marcadores del discurso», I. Bosque y V. Demonte (ed.), *Gramática descriptiva de la lengua española*, Madrid: Espasa, Vol. III, 4051-4213.

MARTÍN ZORRAQUINO, M^a A., 2010, «Los marcadores del discurso y su morfología», Ó. Loureda y E. Acín (coords.), *Los estudios sobre marcadores del discurso en español, hoy*, Madrid: Arco/ Libros, 93-181.

MAZZI, D., 2011, «*In Other Words, ...: A Corpus-based Study of Reformulation in Judicial Discourse*», *Hermes – Journal of Language and Communication Studies*, 46-2011, 11-24.

REAL ACADEMIA ESPAÑOLA (RAE), ASOCIACIÓN DE ACADEMIAS DE LA LENGUA ESPAÑOLA, 2010, *Nueva gramática de la lengua española, Sintaxis II*. Madrid: Espasa Libros.

ROBLES, F., 2012, «Marcadores de reformulación alemanes: entre la conexión y la argumentación», *Revista de Lingüística y Lenguas Aplicadas*, Vol. 7, nº 1 (2012), 213-224.

ROSSARI, C., 1990, «Projet pour une typologie des opérations de reformulation», *Cahiers de Linguistique Française*, 11, 345-359.

———, 1993, «Projet pour une typologie des opérations de reformulation», *Cahiers de Linguistique Française*, 14, 151-171.

———, 1997, *Les operations de reformulation*. Bern: Peter Lang..

ROULET, E., 1981, «Échanges, interventions et actes de langage dans la structure de la conversation», *Études de Linguistique Appliquée*, 44, 7-39.

———, 1987, «Complétude et connecteurs reformulatifs», *Cahiers de Linguistique Française* 8, 111-140.

URRUTIA, A., 1990, *Euskara Legebidean*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.

———, 2008. «Legeen eta administrazioaren hizkera, testu-antolatzaileen ikuspegitik», *Euskera* 53, 2008-2, 525-546.

———, eta LOBERA, A., (arg.) (1997), *Euskara, Zuzenbidearen Hizkera*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.

VÁZQUEZ VEIGA, N., 2011, «El tratamiento lexicográfico de los marcadores del discurso», *Linred, Lingüística en la red*, 02-05-2011, 1-20, Ana M^a Cestero Mancera, Manuel Martí Sánchez (coord.): *I Jornadas de lengua y comunicación: marcadores discursivos. Anexo monográfico* (<http://www.linred.es/numero9.html>), Universidad de A Coruña, http://www.linred.es/numero9_monografico1.html

VILCHES, F. eta SARMIENTO, R., 2010, *Manual de Lenguaje Jurídico-administrativo*. Madrid: Dykinson.

ZABALA, I., 1996, «Testuan iruzkinak sartzeko funtzioa izan dezaketen antolatzaileak: *hau da, hain zuzen (ere), adibidez, batez ere*», I. Zabala (koord.): *Testu-lotu-*

rarako baliabideak: euskara teknikoa. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, 113-130.

Aipaturiko corpusak

Ahotsak, internet: <http://www.ahotsak.com/>

Ereduzko Prosa Dinamikoa (EPD): <http://ehu.es/ehg/epd/>

Goenkale, internet: <http://ehu.es/ehg/goenkale/>

Pentsamenduaren Klasikoak, internet: <http://ehu.es/ehg/pkc/>

Zientzia eta Teknologiaren Corpusa (ZTC): <http://www.ztcorpusa.net/cgi-bin/kon-tsulta.py>

ZIO corpusa, internet: <http://www.ehu.es/ehg/zio/>

XX. Mendeko Euskararen Corpus Estatistikoa, internet: <http://www.euskaracorpUSA.net/XXmendea/>